


# Karkara

*karkara.eus*

❖ Orioko eta Aiako aldizkaria · 2017ko apirilaren 28a · 383 zenbakia



## In Memoriam

Barran itotakoak dakarzkigu gogora hango plakak; itsasoan galdutako arrantzaleak eta erriora erorita hildakoak, erreportajeak.

**8**  
**Mahai bueltan**  
Orio jatetxea

**18**  
**Moila Bazterretik**  
Egoitz Dorronsoro

**23**  
**Gaia Emanda**  
Aitziber Agirre

**25**  
**Erreportajea**  
Herri galdeketa

943831048  
610697668

[www.fotoramiro.com](http://www.fotoramiro.com)

**IZARRA ELEKTROGAILUAK**

*Udaberri*  
**TOP 21** SELEKTIOn

**AURREZTU %21 BEZ**

ORDAINDU 21 HILABETETAN

**499€**

BOSCH  
KONJAKTI  
AKTIBIZKOR KONBIA

**TIEN 21**

Eusko Gudari, 44 · Telf. 943 83 38 81  
20810 Orio (Gipuzkoa)

**libe**  
dietetika  
elikadura aholkularitza

943 53 64 94 · 697 23 86 56  
libegarmendia@gmail.com  
[www.libegarmendia.com](http://www.libegarmendia.com)  
eusko gudariak 35 · ORIO  
[ Lurrua Aranzabe kaleak ]

**Gale Bask S.L.**

BERRIKUNTZAK HANDI ETA TXIKIAK

- Lurrak-komunak-sukaldeak-terrazak
- Pintura lanak
- Igeltzeritza
- Iturgintza
- Elektrizitateak

Kale Nagusia, 2 - beheak (20810 Orio)  
Telf./Fax: 943 134 717  
Mugikorrak: 638 610 343 / 638 610 349  
galebask@hotmail.com

**Katu Moria**  
ARLOITZERITZA HIRUKO

ESTROPALARI, 10  
20810 ORIO

LARRIADIAK  
668 89 11 29

[www.katumoria.com](http://www.katumoria.com)

**cambo** KIDS · STORE

JANTZIAK · JOSTAILUAK · OSAGARRIAK

Nagusia 4 · ZARAUTZ · 943 086 849  
[www.cambo.es](http://www.cambo.es) @camboarratia

0-12 URTE

**ROSANA**  
-ARGAZKI ESTUDIOA-  
fotorosanaarratia@gmail.com  
telf: 943 83 58 43

**ARRANDEGIA**

Astelehenerdik larunbatera 08.30-13.30 Astearte, asteazken eta ostegunetan 17.00-19.30

**Kostera**  
Arralak  
zure arrandegia

**EUSKO GUDARI, 4 943 133 580**

*Hasi bertsotan atalean puntuka arituko dira bertsolariak. Oraingoan Ainara Peñak bota du bertsoa Zenbat alditan ikusi dezu gertutik herri kirola puntuarekin. Hurrengoari ere jarri dio puntua.*

# Karkara

Orioko eta Aiako aldizkaria

**Kultur etxea**  
20810 Orio  
943 83 15 27

karkara@karkara.com  
www.karkara.com

**Editorea**

Karkara taldea  
kultur elkartea

**Erredaktore burua**  
Miriam Garcia

**Erredakzio taldea**

Jon Agirresarobe  
Onintza Aiestaran  
Olatz Artola  
Lore Berasaluze  
Iñigo Exposito  
Jon Garate  
Elizabete Manterera  
Intza Unanue  
Rikardo Uzkudun

**Publizitatea**

Sonia Albizu

**Ale honetako kolaboratzaileak**

Aitziber Agirre,  
Alazne Arruti,  
Egoitz Dorronsoro  
Iñaki Iturain,  
Ainara Peña eta  
J.M. Perona

**Diseinua**

Saioa Perona

**Banatzzaileak**

Ibon Berasaluze,  
Iñigo Fernandez (Orio)  
Eli Irureta (Aia)

**Inprimategia**

Gertu Koop. E. (Oñati)  
Lege gordailua SS-346/90  
ISSN 1132-1105  
Tirada 3.450 ale

KARKARAK ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esaneren edota iritzien erantzukizunik. KARKARAN argitaratutakoa berreman daiteke, osorik edo zatika, baldin eta iturria aipatzen bada.

## PUNTUA JARRITA

**AINARA PEÑA** (DOINUA: PELLO JOXEPE)

### Zenbat alditan ikusi dezu gertutik herri kirola?

Galdera horrekin Idoia aizu sartu didazu zuk gola!  
Aitortuko dut kirol tarterik nere bizitzan ez dola.  
Ta gizona mundu horretan zu zara nere idola.

Formula bata, futbol, arrauna askoren gaixotasuna.  
Zure jardunak lehiatik urrun badauka duintasuna.  
Norbere onena, errespetua, bizipoz, umiltasuna,  
sentiarazten didan kirolak piztuko (d)it zaletasuna.



**Hurrengoari puntua: Astero joaten zara bertso eskolara...**

TOKIKOM



Publizitatea kontratazeko:  
**Karkara**  
688 859 682 (Sonia)  
publizitatea@karkara.com



karkara.eus

**LAGUNTZAILEAK**



Aiako Udala



Orioko Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILAK  
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

JAR EZAZU  
PUBLIZITATEA  
·KARKARAN·

Sonia

688 859 682

## Itsasoan eta erriean hildakoen zerrenda osatzen

Barruko erreportajeak, itsasoan eta moilan hildakoen zerrenda osatzen saiatu gara. Baina oso litekeena da denak jaso ez izana, norbait ahaztuta utzi izana. Ahoz aho jasotako informazioa dakar erreportajeak.

Ahaztuta geratutako baten baten berri ematen badiguzue, Karkararen hurrengo zenbakian jarriko dugu.

Barkatu eta eskerrik asko. ■ **Karkara Taldea**

## Gutunerako oharra

Argitaratu nahi diren gutunak KARKARA bidali daitezke posta elektronikoz honako helbidera: karkara@karkara.com edo gure lokalera eskura ekarri (Orioko edo Aiako Kultur Etxean) edo postaz bidali. KARKARAK ez du argitaratuko izenik gabe datorren gutunik. Egileak hala nahi badu, ezizenarekin argitaratuko dugu; baina, beti, guk egilea nor den jakinda. Gutunean norbait aipatzen baldin bada eta norbait horrek gutunaren egilea nor den jakin nahi badu, KARKARAK esan egingo dio.

KARKARA bere egiten du eskutizak laburtzeko eskubidea.

## 1943an jaiotako bazkaria

Urtero bezala, 1943an jaiotakoek lagun arteko bazkaria egingo dute. Aurten 36 urte beteko dira bazkaria antolatzen hasi zirenetik.

Bazkaria ekainaren 3an egingo dute, larunbatarekin. 14:00etan izango da Hondartzako Galerna jatetxean. Ordu erdi bat lehenago juntatuko dira plazan, 13:30ean.

Izena emateko, Fernando Larrañagari deitu behar zaio -943 832 666- maiatzaren bukaera baino lehen. ■ **Fernando Larrañaga**

## ZORIONAK!

### Bejondeizula, Hossain!

**A**pirilaren 8an, hausnarketarako bidea ireki nahi duen erronka abiatu zuen Hossain Kaanache oriotarrak. Bizikletaz Orioko plaza tera zen, bere gurasoek egin zuten bidaia aurkako noranzkoan egiteko. Ibilbidea bizikletan eta korrika egin ditu Kaanachek eta hamar egun behar izan ditu Iberiar Penintsula zeharkatu eta Marokoko Taza eskualdean dagoen Brarha herrixkara iristeko.

Erronka gogorra jarri zion bere buruari Kaanachek, eta aurreikusitakoa baino denbora gutxiagoan bete gainera!

Zorionik beroenak Hossaini. Bateatik, bere buruari botatako erronka betetzeagatik. Bestetik, zabaldu nahi izan duen mezuagatik eta injustizien kontra egiten duen borrokagatik. Bejondeizula, Hossain!

## JAIOTAKOAK

- Kilian Rodriguez Simon, Orion, apirilaren 18an.
- Kresal Zinkunegi Galdos, Orion, apirilaren 15ean.
- Etxahun Anton Olaizola, Orion, apirilaren 15ean.
- Beñat Aldakur Gardiel, Orion, apirilaren 4an.
- Xabat Martinez de Eulate Romeo, Orion, martxoaren 30ean.

## EZKONDUTAKOAK

- Leire Beldarrain Arsuaga eta Julio Cesar Lopez Viru, Orion, martxoaren 18an.

## HILDAKOAK

- Patxi Arruti Azkue, Aian, apirilaren 22an. 72 urte.
- Juan Murillo Arias, Orion, apirilaren 21ean. 87 urte.
- M<sup>a</sup> Jesus Uranga Iruretagoiena, Orion, martxoaren 29an. 84 urte.

Eskela edo urteurreneko gogoangarria Karkaran jarri nahi baduzu, deitu gure telefonora:

**943 83 15 27**



Mutiozabal ontziola berritzeko lanak hasi dira. ORIOKO UDALA

# To be edo ez izan

“Jendea ibili bai, ibili zen hondartza aldean, baina herriko tabernetan dantzarako nahikoa giro epela izan omen zuten.”



Aste santu amaieran zikoina agertu zen Orion. EGIGUREN ARGAZKIAK

Z iztu bizian ebaki zuen apirilaren 5eko gaua Korrikak. Argi indar handiz sartu zen herrian ordu txikietan, oriotarren arnasestu eta oihu artean. *Uste baino azkarrago pasa da!* izan zen askoren komentarioa. Antolatzaileek gaueko orduak egunez galtzen duten denbora errekuaratzeko aprobetxatzen dituztela zioten zurrumurruek, eta batek baino gehiagok ozta-ozta amaitu zuen kilometroa.

Salto. Giro ederra izan genuen Aste Santuko oporretan. Jendea ibili bai, ibili zen hondartza aldean, baina herriko tabernetan dantzarako nahikoa giro epela izan omen zuten. Herri lasaia da Orio. Lasaiegia, agian? Zer eskaini nahi diegu bisitan datozen turistei? Pasealeku eta parkeez gain, kanpotarrak erakarriko dituen bereizgarririk badugu?

Halako batean, hasi dira Mutiozabal ontziola zaharra sanotzen. Egurrezko bigak, erraminta zaharrak, itsasontziak egiteko moldeak... hautsak jandako makina altxor bada bertan! Eraikina bera erosi eta sendotzeko erabakia hartzeak nahikoa buruhauste eragin ditu, baina are zailagoa izango da Mutiozabal berrituaren etorkizuneko izaera, programa, funtzionamendua eta halakoak finkatzea; alegia, zentroaren eguneroko martxari zentzua emango dion proiektua sortu eta adostea. Lortuko dugu ohiko eztabaidetan denbora gehiegi galdu gabe?

Kanpandorrean ostatu hartu duen zikoinak maiatza gerturatu digu herrira mokotik zintzilik, eta urteko bosgarren hilak Herri Galdeketa dakar altzoan. *Nahi al duzu euskal estatu burujabe bateko herritarra izan?* ala ez izan. *That's the question.* Atal berezia sortu dugu Karkara.com atarian galdeketa inguruko informazio guztia jasotzeko. Ea ba!



Maiatzaren 7an herri galdeketa egingo da Orion. KARKARA

# Nola sortu zen euskal jai eguna antolatzekeo ideia?



“Jendea ari da animatzen, polita izango da”

**D**antzariak izandako talde bat elkartu ginen eta San Pedroetan zerbait egiteko gogoaz piztu zitzaigun, festak pixka bat girotze aldera. Euskal jai bat egitea pentsatu genuen, eta ohitura bat hartzea da helburua.

Eragileekin ere hitz egin dugu: soziedadeetakoek bazkari herrikoia antolatu dute, adibidez. Jendea ari da animatzen eta zerbait polita aterako dela uste dut.

Inude eta artzainen konpartsa aterako dugu. Duela 24 urte egin genuen lehenengo aldiz. Orain gauden taldeko batzuk inoiz ez zuten parte hartu eta gogo handia dute.

**Koro Sarasola**



“Herrikoek parte-hartzeko zerbait antolatu nahi dugu”

**A**zken urteetako San Pedroak triste samarrak izan direla ikusita, garai desberdinetan dantzan ibilitako jendea elkartu ginen. Herriko jendeak parte-hartzeko zerbait antolatzea pentsatu genuen eta horrela sortu zen euskal jaiaren ideia. Urtero zerbait antolatzea da helburua. Guk, dantzariok, inude eta artzainen konpartsa aterako dugu.

Herriko hainbat eragilerekin jarri ginen kontaktuan gure ideia aurkezteko eta erantzun onak jaso genituen; horrekin Udalera jo genuen gero. San Pedroen ondorego larunbatean egitea pentsatu genuen, jende askok ez baitu jai hartzen festetan.

**Eneko Dorronsoro**



“Kantu-jiran herritarrek kantatzea nahi dugu”

**M**usika eskola ez dago ideia sortu zuen taldean, baina parte-hartzeko dugu Euskal Jaian. Deialdia jaso genuen Udaletik, esanez jaia antolatu nahi zuen talde bat zegoela eta herriko kultur eragileei deitzen zitzaigula parte-hartzeko.

Musika eskolako kantuko eta trikiti-xako ikasleok Salatxo Abesbatzarekin eta Otxotearekin kantu jira herrikoia egingo dugu. Betiko kanta batzuk aukeratu eta trikitixaren laguntzarekin jendea kantatzera animatu nahi dugu. Koruak oinarria jartzeko egongo dira, baina gure helburua herritarrek ere kantu-jiran parte hartzea da. Azken finean, Euskal Jaia herrikoia izango da.

**Elena Errasti**

Herri baten bizimodua errezeta liburutan jasotzen da. Lagunarteko otorduak; etxeko jan ohiturak; baratza, ibaia eta itsasoa; jatetxeetako sukaldeak... ikasteko lekuak dira denak. Mahaiaren bueltan gauza asko egin daitezke. Interesgarrienak bi: jan eta berriketan egin. Goazen Orioko errezeta liburua idaztera.

## “Bartzelonan herriko arrastoei segika”

### **Orio jatetxea, Bartzelona (Herrialde Katalanak)**

#### **Orio entsalada: euskal letxuga eta hegaluze mendezka**



#### **Osagaiak**

Letxuga.  
Tipulina.  
Tomatea.  
Hegaluze mendrezka.  
Piper txikia edo pipermina.  
Olioia.  
Gatza.  
Ozpina.

#### **Edaria**

Zerbitzariaren gomendioa:  
ardo zuria.

#### **Nola egin**

Ez du sekretu handirik. Letxuga eta tipula basea sendo samarra da. Lau izkinetan tomate zati handiak, tomate ertain baten laurdena ertz bakoitzean. Hegaluze mendrezka eta piperrak oliotan egon dira, plateraren erdian kokatzen dituzte bat bestearen gainean. Olioarekin eta gatzarekin gozatuta dago gehienbat; letxugaren behe aldean dago gozagarri guztia. Jalea konturatzen denean errez nahastuko du mahaian.

### **JON AGIRRESAROBÉ**

**O**porretatik bueltan, San Jordi bezperetan, gelditu gara arrosen eta liburuen hirian. Bartze lo ona, ederki deskantsatu dugu. Indarberrituta, goizetik iluntzera kilometro asko egin ditugu. Tipi-tapa oinez, tapaz tapa tabernaz taberna. *Tripai bai* zorturismo gidak markatu dizkigu erremediorik gabe ezagutu beharreko jatetxeak. Euskal usaia emana diote askori. Orio izenekoak ere badira bi, Madrilen eta Valentzian beste bana. Goazen barrura. Ez da eguneko sorpresa bakarria izango.

Urrutira nabarmenak dira bi Orio tabernak: Francesc Cambo 33an Katedraletik gertu dago bat, Sant Jaume plaza ondoan bestea. Egiten hasita berdina egin zituzten. Sabaian trainerua, herriko plazan zortzikoa bezala. Ikerketak zabalik jarraitzen du, baina seguru samar esan digute Ikazetarenak edo *Ixarrarenak* direla bi ontziak. Paretetan Donostiako Estropaden iragarpen kartelak, eta traineru horiaren bi argaz-

ki. Etriborra koloretan: Txabola, Etxabe, Goñi, Iriondo, Etxeberria eta Sarasua. Baborra zuri beltzean: Orbañanos, Puertas, Gaztañazpi, Aizperro, Frances, Urbieta eta Altxerri. Laurogeita hamargarren hamarkada amaierako traineru irabazlea da. Argazkiei begira ari garen bitartean Mikel Laboa ari da kantuan, atzetik datoz Amaia Zubiria, Etzakit, Zazpi Eskale, Tapia eta Leturia eta beste zenbait. Euskal Presoen aldeko aldarrikapen kantuek ere bai tartean.

Euskara entzun bai, irakurri eta usaindu nekez. *Eramateko* idatzita irakurri daiteke kartan, gainontzekoak katalanez, ingelesez eta gaztelaniaz azalduta daude. Bi zati nabarmen bereiztuak dituzte lokalak eta eskaintzak: taberna eta jate-txea, pintxoak eta menua. Zerbitzari prestuak eta azkarrak lanean, euskaldunak garela usaindu eta txakolina eskaini digute. Lau euro ordaindu dugu ardo zuria kopa. Azken kolpea eman berritan, edukazio handiz kendu digute kopa mahai gainetik. Jatekoen artean ez digute Xixarioko bisgurik edo





Astebarruan ere jende asko ibiltzen da Orío tabernan . AGIRRESAROBÉ



Joxe Torretxoren argazkia Bartzelonako Mercat Princesa tabernan.

“Eskaintza zabalean bitan agertzen da Orío hitza. Oriko txistorra frijitu jartzen du batean, Orion entsala da bestea”


Makatza, Bixente eta Koldoren marmitakorik eskaini mantal horidun zerbitzariak. Eskaintza zabalean bitan agertzen da Orío hitza. Orioko txistorra frijituta jartzen du batean; Orío entsalada da bigarrena.

Sagardi kateak daramatza Orío eta beste hainbat taberna kate, denak pintxo eta tapa eskaintza zabalekoak. Mordoxka daude Bartzelona osoan. Baina ez da multzo bakarra. Txapelakatea da hedapenean dabilen bestea. Lau daude, gutxienez, Bartzelonan bertan: bi Gracia pasealekuan, Catalunya plazan eta Mercat Princesa izenekoa Born auzoan. Itxuraz berdin-berdinak lehen hiruak, antza handia du laugarrenak. Gizonak agertzen dira marko beltza duten argazkitan. Artzainak, apaizak, kaletarrak, arrantzaleak; denak nahasian. Denak txapela buruan. Tartean Joxe Agirresaroberen bi argazki, motor txikian agertzen da Joxe *Torretxo*.

Argazkiak galdetuta Gabriele tabernako gerenteak inguruko lankideak bildu ditu gure aurrean. Nagusia falta da, baina bi dira teoriak. Bakarren batek gogoan zuen katearen nagusia Orion izan zela oporretan eta Joxe *Torretxok* motor txikian erakutsi ziola erroia eta herria. Beste lankide baten iriziz dekoradorearen ideia izan zen txapelen argazkiak jartzearena. Biak ere izan daitezke. Pentsatzen jarrita gure osabak biegi egingo zien irribarre: nagusiari eta dekoradoreari.

Jatorrak dira Txapelako langileak. Berriketan ari garela doan atera digute pintxoak. Lotsatu ere egiten da bat, eta lagun zahar bati galdetu diogu zer egiten den horrelakoetan. Hura ohituta dago gonbidatua izaten. Azkar eman digu erantzuna: musu-zapia aho bueltan pasa eta ospa.

Orioko argazki eta santutegiak bai, baina bila aritu gara eta ez dugu Bartzelonan Orío edo Aiako sukaldaririk aurkitu. Zuen pisten zain gelditzen gara, berriz itzultzeko.



**mauka**

PAPERDENDA LIBURUAK ETA OPARIAK

TEL: 943 572 083  
FAX: 943 571 190  
lasenjo@hotmail.es

INES ASEÑO  
ABESLARI, 1  
20810 ORJO



**AIRDATZA modas**

Eusko Gudariak, 7 • Tel./Fax: 943 83 10 88 • 20810 ORJO

HAUR ETA HELDUENTZAKO JANTZIAK



**ROSA**

GARBIÑE ARRILLAGA  
ARITZAGA KALEA, 2 - TEL: 943 13 19 41

10% DESKONTUA FAMILIA UGARIENTZAKO

*Garbiñe Arrigi*

*Moda eta osagarriak*

*Herruko plaza, 15*  
**635 706 265**

*paupantzen goizez zabalk!*

emakume arropa - neurri bereziak  
kinkiladenda - barruko arropa



**argine**

35eko deskontua familia ugarien txartelarekin

Eusko Gudari, 9 - Orjo  
**943 134 889** argine/jantziak



**Zaragueta Herri Eskola Orjo**

telefonoa: 943 89 40 52  
e-mail: 012137aa@hezakuntza.net

*Lizaso dekorazioa*



**Tf: 943 83 07 84**

**Faxa: 943 24 87 18**

**Eusko Gudari, 48**



**Sagasti LEIHOAK**

ROBERTO SAGASTI

Tel. 943 13 00 77 - Fax. 943 53 71 50  
sagasti@sagastileihoak.com  
Arrantzale kalea, 65  
20810 ORJO (Gipuzkoa)

obrak  
proiektuak  
errehabilitazioak  
txostenak  
eraikuntza zerbitzuak  
ITEak  
erakinen mantenua



**XS**

borja agirresarobe lopetegi  
herriko-barru 6, behea  
20800 zarautz

arkitektura



6 3 5 7 3 1 7 2 2  
9 4 3 1 3 4 3 5 8  
xs@xsarkitektura.com

**PERTSIANAK**

A K O M A Z



Aluminio, PVC  
Venezianak  
Motorrak...

Tel. 943 13 29 01 Mugikorra 600 70 52 27

**LUXARBE**  
*igeltseritza*

Igeltseritza orokorra, denetarik egiten dugu.

Presupuestoak eskatu konpromisorik gabe

Lan txukuna eta merkea

Tfnoa: 943 83 59 00

**MENDIZABAL AROZTEGIA**

*Neurriko armariek eta egurrenak*

943 831 175  
645 708 491  
mend@aroztegi.net

Altxerri bidea  
8erri-Aizal etxea  
20810 Aizal-Orjo

**JON ANDER MAIZA AROZTEGIA**



**LEIHO ISOLATZAILEAK  
PVC - ALUMINIOA**

**690 99 39 32 / 943 30 07 88**

ventanasmaiza@gmail.com  
www.carpinteriamaiza.com  
Antxiola kalea 19, 1º C 20810 ORJO

**ZINKU**

Igeltseritza orokorra  
Eusko erreferentzia mola guztiak  
tabiak, batri gelak, igeltseria...

Ander Zinkunegui  
**667 740 279**

# Gizarte likidoa



Alazne Arruti Bengoetxea

**T**arteka paseatzen ari naizela autoetako bidaiariei begiratzen diet. Gidariari baino, atzealdeko bidaia lagunei: haurrak izan ohi dira tableta, mugikor erraldoi edota mota guztietako aparailu elektronikoen erabat galduta. Eta nire baitarako diot, aspaldi bidaia luzeetan liburuak izaten nituela lagun, edota ikusi-makusian jolastera behartzen nuela baten bat. Terrazetan, bikoteak parez pare, *ikusi zer bidali didaten, tximu dantzari bat txindata jotzen eta bai bai, nik ere jaso nuen baina begira, hau askoz hobea da* aditzera ohitu gara.

Erraza da lupa hartu eta ingurua kritikatzeko, baina ni neu ere horren konplize naiz. Hamar minutuero orduari erreparatzeko aitzakiaz mugikorra hartu, poltsikoan pilatutako zaborra ikuskatu eta zer ordu den galdetuko bazenit, ez nintzateke erantzuteko gai izango. Whatsapp mezuz gainezka, korreo berri bat, facebookeko egunkari kutsatua... horrenbeste dugu eskura eta horren gutxi da baliagarria benetan.

Zygmunt Bauman soziologo eta filosofo poloniarrek, gure gizartea likidoa dela zioen. Bere ustez, giza harremanak modu prekarioan garatu dira gizarte indibidualista eta pribatizatuan eta likidoaren antzera, izaera aldakor eta lurrunkorra dute. Aldakorra izatea ez da zertan txarra izan, baina modu etengabe aldatzeak, inguruaren itxura hartzeak, ez ote dakar berezko forma galtzea?

Egia da, aurrerapenak aurrerapen, inoiz baino informazio gehiago dugula eskura. Zenbatetan aditu ote dugu, *gure garaian ez zen halakorik* guretzat guztia errazagoa bailitzan. Baina egoera berri bakoitzak, arazo berriak dakartza eta nire ustez gure erronka gain informazio horren garbiketa lana izango da. Komunikazio arduratsu baten oinarriak finkatzea. Harreman sano eta baliagarriak eraikitzea.



Iñigo Gaiton

## Entzuten dakitenei



azte garaian Jimi Hendrix izugarri miresten nuen. Red Hot Chili Peppersko Frusciante gitarra-jolea ere bai.

Kelly Slater eta Joel Tudor surfariak, zer esanik ez. Hogeitaz eskasekin hondartzan pasieran nenbilela, marea igo zen di-da batean, berriz jaitsi, udaberri pare bat pasa eta ohartzeko, 30 urte bete ditut. Eskolan ez ziguten abisatu urteekin ilea urdin edo erortzen den gisan, logelako posterrak itsasteko zeloak ere indarra galtzen duela, eta dutxako urak kolpetik hoztu eta ezustean gorputza izozten digunean bezala, miresmenak beste kutsu bat hartu du nigan.

Hitz egitea ia arnastea beste behar dugunontzat, ariketa zaila da entzutea. Doktrina saioetan saiatu ziren horretan irakasten, baina guk isilik egoten ikasi genuen. Iaz hartu nuen horren kontzientzia unibertsitateko saio batean. Madrildik etorritako hizlaria lau orduz aritu zen hizketan entzuten jakiteak enpresen barne komunikazioarentzat dituen onurez. Hasiera batean, topikoz beteriko saioa iruditu zitzaidan Enrique Sueirorena, baina apustu egingo nuke gerora bere teoriari esker hasi naizela tarteka mingainari koskegin eta belarriak sarriago tentetzen, edo behintzat, horretarako gaitasuna dutenei benetako miresmena izaten.

Lehenengo udazkenetik, nire kalapitak entzuteko pazientzia duten hiruzpalau lagun eta senitartekoren posterrak ditut logelan.

Zuek bai superheroiak.



# In Memoriam: itsasoan eta errioan hildakoak gogoan

Barra-muturrean jarri duten plakak XX. mendean barran itotakoen izenak ditu. **Tamalez, itsaso zabalean ere galdu dira arrantzaleak, uretara erorita; eta errioan ere bai, herrian bertan.** Horiek denak ekarri nahi ditugu gogora.



TESTUA: IÑAKI TURAIN  
ARGAZKIAK: ARTXIBOA

**B**rit Aierbe familiarena tragedia latza izan zen. Joakin Britek ondo gogoan du nola haien etxeko zortzi anai-arrebetatik hiru itota hil ziren. Bi, 6 urteko Jose Mari eta 23ko Manuel, uretan; eta neska, 18 hilabeteko Lourdes, josteko makinaren kanila tragatuta.

**Jose Mari Brit** lagun batekin zebilen jostatzen, arraun egin nahi zuten txalupatxo batean, Kolon Txikiren parean. Jose Marik txalupara salto egin eta, barruan zela, moilari heldu zion laguna sartzeko, batela pixkana urruntzen hasi zitzaion atzeraka, hankak batelean zituela, eta uretara erori zen.

**Manuel Brit** *Hermanos Manterola* baporean zebilen. Barkua Ferrol aldeko portu batean zegoen. Han zirela, Manuel barkuko marinela txanela batean lehorretik barkura eramaten zebilen. Hainbat joan-etorri egin zituen. Azken biak

eraman behar zituen ontzira, igeri egiten ez zekitenak. Itsa-soa handitzen ari zen eta olatu handi samarrak altxatu ziren. Olatu batek irauli egin zuen txanela. Bi marineletako batek heldu egin zion eta harekin batera joan zen hondora betiko Manuel Brit, Galiziako atzerrian.

Brit-tarren tragedia handitzeko, arrebarena dago. **Lourdesek** 18 hilabete zituen. Gaizki jarri zen eta ospitalera eraman zuten. Ez zekiten zer zuen, medikuek ez zuten asmatzen, ezin zuen arnasa ondo hartu, jan ere justu-justu. Pisua galitzen ari zen. Hilabete eutsi zion, herio batean hil zen arte. Gero topatu zioten, eztarrian trabatuta, josteko makinaren kanila bat. Hark tapatzen zion arnasbidea, haren zulotik barruna sartzen zitzaion pasatzen zen aire apurra.

Hiru seme-alaba haiek hildakoan, burua galtzen hasi zen haien ama zena. Geroztik ez zen bere onerantz zuzen; ez zen inoiz istripuen aurreko emakumea izan. Umeak gogora etortzen zitzaizkionean, marru egiten zuen, “umeak ez dira hil, bizirik daude, ostu egin dizkidazue”. Barruan min hori zuela bizi izan zuen bere mundualdi ia osoa, arantza mingarri hura bihotzetik atera ezinik.

Haien lehengusina bat ere, 3 urteko **Miren Itziar Brit Arruti**, uretara erorita hil zen herriko plaza inguruan jolasean zebilela. Kolore txuriko hilkutxa txiki batean eraman zuten haurtxoa hiletan, haren aita Jose Benito Briten dantza-ikasleek. Gogoan dute oraindik ere egun hartako pena infinitua.

### Erriean hildakoak

**Esteban Goikoetxea** *Oltzu* Gure Gogo baporean lanean hasi berria zen, txotxo. Etxekoak Esteban falta zela konturatuta, bila ibili ziren. Uretan aurkitu zuten. Barkura zihoala, bapore batetik bestera, deskuidatu eta bi barkuren artean erori zen. Denbora tarte batean, biziari eusteko helduleku baten bila borrokan aritu zen uretan, herioa biziari nagusitu zitzaion arte. Egun hartan errimatu egin zuten erriok eta herioak.

**Martin Etxeberria**. Uretara erorita ito zen, mutil koskorra zela. Oxford-Cambridge-Orio estropada hiru egun lehenago jokatu zen. Kofradia ondoan jarritako tribuna jostailu bihurtuta, jostatzen zebiltzan haurrak. Haietako bat zen Martin. Umea moilatik erori eta buruarekin txalupa bat jo zuen..

**Rafael Rivas**. Santoñako arrantzalea ere *Oltzu* bezala erori zen uretara. Sanpedrotan izan zen, goizaldean kareletik karelera San Juan bere baporera lotara zihoala.

**Jose Mari Manterola**. Plazako Jose Mari erretegiko semea automobil eta guzti erori zen, udaletxe aurrean. 14 urte zituen eta gidatzen ikasten ari zen. Arraunlariak hilda atera zuten uretatik. Garai hartan Ori ibaiak titulu triste bat zeukan: Europako ibairik zikinena zen, Tolosa aldeko paper fabrikek isuritako ur kutsatuengatik. Ur zikin ilunak ziren. Ez zen ezer ikusten eta zaila zen uretara eroritako inor handik ateratzea.

**Jose Juan Alkorta**. Portu baserriko Lourdes Indorekin ezkondu berria zen. Alaba Maider 2 urte zituela. Zubipean ontzi motorduna zuen. Hura zaintzera joanda, ontzitik erori, konortetik gabe geratu eta marea igo zenean ito egin zen.

**Jorge Garmendia**. Xarpastarreneko Jorge kamioian erori zen putzura. Xuaiko aldapan goitik behera zetorren Oriora. Xuai baserriaren parean, direkzioa hautsi eta ezin izan zuen

aldapako azken kurba hartu eta erriora amildu zen. Kolpearen ondorioz hil zen, odolustuta. Lau urteko ume baten aita zen zortzi Xarpas anaietako gazteena.

**Jean Claude eta Pierre Ameztoi.** Baionako lau gazte, 2 neska eta 2 mutil, autoa eta guzti erori ziren. Larunbat gaua zen, estropada bezpera. Goizeko hirurak aldera, gazteak Ollagorrra diskotekatik atera berritan moila aldera zihoazen, etxera bidean. Behe-lainoa zen eta errio ertzean ez zegoen argirik, ezta baporerik ere uretan. Autoak kurba hartu gabe, aurrera egin zuen eta ur ilunetan murgildu. Bi neskak igeri atera ziren; mutilak, berriz, bertan gelditu, irten ezinik. Berehalabildu zen jendea inguruan, inork ezin izan zuen ezer egin.

**Juan Jose Olano.** Orian, Orio inguruan, ito den azkena 2016an izan zen. Egun hartan, Saizar sagardotegian sagardoren denboraldia zabaldu zuten. Han izan zen Juan Jose aginarra. Festa bukatuta, hirurak aldera, erriora joan zen anguletara, Intxaurreta aldera. Putzu izkinan irrist egin eta uretara erori zen. Ur-ontzi baten azpian kateatuta topatu zuten.

### Arrokatan galduak

Benta baserriko bi seme arrokatik itsasora erorita hil ziren: **Emilio eta Antonio San Sebastian.** Emilio, San Antonio baporeko arrantzalea, lehorretik zebilen arrantzan, kanaberarekin. Arroka artean galdu zen, irrist egin eta itsasora erorita, 1947ko irailaren 15ean, 23 urterekin. Ez zen inoiz agertu, itsasoak gorde zuen betiko.

Antonio ehizan zebilen Luxarbeko bi anaiekin, 1953ko urriaren 11n. Itsasertzeko arroketa jo zuten. Han, tiro egin eta eroritako usoaren bila zihoala, goroldioan irrist egin eta itsasoraino erori zen. Igeldo azpiko arroketa agertu zen, 9 egunera. Urtebete lehenago, 1952an, 19 urteko Antoniok ireki zuen aizkoraz Virgen Carmeli baporearen kaskoa. Zulo hartatik atera zen bizirik Itxaspeko Joxe Irastorza.

### Itsasoan galdutako arrantzaleak

Errioari eta barrari prezio latza ordaindu behar izan dio Oriok, baina baita itsasoari ere. Izan dira arrantzaleak baporetik erori eta itsasoak betiko irentsitakoak.

**Tomas Mujika Lizarazu** izan zen horietako bat, Tomas Itxaspe. Zeruko Ama baporetik galdu zen 1982ko uztailaren 19ko gauean, itsaso zabalean. 1947ko uztailaren 4an jaioa zen, 34 urte zituen. Haren gorpua ez zen inoiz azaldu.

**Joxe Urbieta Lizaso** Dikeko arrantzalea itsasoan galdu zen, San Fermin baporean zebilela. Ontziko kubiartari argia ematen dion goiko bonbilla fundituta, Joxe gora igo zen hura aldatzera. Goiko paloan horretan ari zela, itsasoaren mugimendu zakar batek bota egin zuen (1972-03-08). Joxek 29 urte zituen. Ezin izan zuten atera. Ez zen azaldu.

**Jose Felix Murua Iñarra** uretara erori eta ez zen sekula agertu. Murua San Antonio baporean zebilen, arrantzale. Frantziako Bordele parean zirela, kareletik erori zen, 1978ko uztailaren 10ean, 51 urte zituela. Juanito Dorronsoro baporeko patrioiak ondo gogoan du: *Eguraldi kaxkarra zen; beita egin ondoren sarea jaso eta fondoa bota genuen; afaltzera gindoazela, konturatu nintzen Joxe falta zela. Haren bila ibili ginen, baina alferrik, itsasoak irentsi zuen betiko.*



“Joanes Etxaniz 1584an Ternuan hil zenetik, arrantzale oriotar asko hil dira itsasoan.”

“Errioari eta barrari prezio latza ordaindu behar izan dio Oriok: herritar askok bizia galdu dute uretan.”



## ERRIOAN HILDAKOAK IN MEMORIAM

Jose Mari Brit Aierbe	1963-06-06	6 urte
Manuel Brit Aierbe	1968-09-12	23 urte
Martin Etxeberria Murua	1969-08-20	4 urte
Jose Mari Manterola Peña	1972-08-19	14 urte
Jose Juan Alkorta Arruti	1972-12-16	37 urte
Miren Itziar Brit Arruti	1973-04-04	3 urte
Esteban Goikoetxea Eizagirre	1979-03-20	16 urte
Jean Claude Amestoy	1982-09-11	29 urte
Pierre Amestoy	1982-09-11	23 urte
Jorge Garmendia Etxeberria	1992-05-19	29 urte
Rafael Rivas Berastegi	1993-06-30	46 urte
Juan Jose Olano Otaño	2016-01-16	49 urte

**Luis Mari Manterola Intxauspe** itsasoan hil zen (1988-05-02), 41 urterekin; Juanita Etxaide alargunak ondo gogoan duenez. Paulo VI-ko arrantzalea zen. Arratsean antxoatan zebiltzala, uretara erori zen. Egun batzuetara aurkitu zuten itota Aingeru Guardakoa-ko marinelek.

**Ramon Garaialde Oliden, Juan Mari Garate Tolosa eta Juanito Abaurrea Lazkano** arrantzaleak itsasoan hil, baina ez ziren galdu. Haien gorpuak herrira ekarri zituzten. Ramon, Mediterraneo baporean antxoatan zebilela, bihotze-koak jo eta kareletik sare barrura erori zen; handik hilda atera zuten (1988-03-15), 46 urte zituen. Juan Mari Tubaleko arrantzale eta urpekaria zen; sarea helizean kateatu eta hura askatzera murgildu zen, ez zela ateratzen, haren bilasartu eta itota atera zuten (1988-09-05), 51 urterekin. Juanito Afrikan zebilen arrantzan, Boli Kostako Abidjan parean zirela, buruko isuri baten ondorioz hil zen 47 urterekin (1990-10-27).

**Jesus Mari Alkorta Aramendi** getariarra, Rosa Mari Agirre oriotarraren senarra, itsasoan galdu zen. Merkante batean zebilen. 1978ko irailaren 8an Ameriketatik Cadizera zihoan barkua. Jesus Mari betiko desagertu zen itsasontzitik. Jesus Mari eta Rosa Mari bikote gaztearen seme-alaba bikiek 10 hilabete zituzten, Andoni eta Oihanak.

Holako galerek, holako tragediek, arrastoa uzten dute. Batzuk saiatu dira hutsunea oroigarri bihurtzen, artearen bidez mina arindu eta ahanzturaren kontra borrokatzen: Tomas Itxasperen galera Kareletik filmaren gidoira eraman zuen Anjel Lertxundik. Alkortaren galera poema eta kantu zirraragarri bihurtu zuen haren alaba Oihana kantari bikainak:

Itsasoko olatuen gainean, nabigatzen dihardut,  
harkaitz honetan, hotz dago; urrunean, argi gorridun  
itsasontziak agur esaten dit eta hemen nago ni,  
kaixo esaten, zerura begira, airean idazten...

*edariategia*  
**ANTILLA**  
*jatetxea*

Abeslari kalea, 2 - Tel. 943 83 23 00

**Carmen eta Txomin**  
 ARRADEGIAK



943 83 05 37 / 943 83 27 47

**HAIZE BERRI**  
 taberna-jatetxea-kafetegia

Plater konbinatuak,  
 bokatak,  
 hamburgesak,  
 rasiok,  
 eguneko menua...

*ostiraletan  
 pintxo  
 potea!!*

eta etxera eramateko  
 zerbitzua!

**943 831 623**

Osteko kalean, Erribera 1  
 Osozeta 2004

**SU  
 KIA**  
 TABERNA, JATETXEA

On agin eta geru... hanta KOPA eta TOPA!

- OILASKO ERREAK ERAMATEKO
- EGUNEKO MENUA
- EGUNKARIAK
- OGIA

TEL. 943 832 128  
 AGARDIEN 36, 1. BARRIO

*Portu*  
**ERRETEGIA**

Santo Erreka Auzoa, 20  
 943 89 24 34  
 20809 AIA-ORIO

*laxatzen laguntza aldetan  
 puntxo erabaki egonko menua*

**ITZALA**

*kartelak jokatzen  
 aprofesatzen*

tel. 943 83 12 59

**Gabon**  
 TABERNA

- ✓ Pintxoak
- ✓ Plater konbinatuak
- ✓ Ogitaratekoak

943 83 06 09

**KOLON TXIKI**  
 ostirategia  
 jatetxea

Herriko Euzarantz, 4  
 ORIO  
 Tel. 943 83 00 44

**ARISTERRAZU**  
 jatetxea

Andatza auzoa - AIA  
 Tel. 943 83 45 21

**ASADOR  
 XIXARIO**

Lurko Galaran Kalea, 2  
 Tel. 943 830 019 - ORIO

**kutixi**  
 kafetegia  
 GOSARI GONDOAK

Antzaga 9, 20810 Orio  
 Tel. 943 13 13 17

JATETXEA  
**Galerna**

Antillako  
 Hondartza 5  
 20810-Orio  
 Tel.:943 89 04 16

KAFETEGI-OKINDEGI-GOZOTEGIA **GELATTO**



943 578 176  
 Herriko euzarantz

**Izozki naturalak - Opilak**

**PIZZERIA**



**KALETA**

ARRANTZALE KALEA, 10  
 TELEFONOA: 943 24 89 46

**INDO**  
 Garraio frigorifikoa  
 NAZIONALA ETA NAZIOARTEKOA

Ubegun industriagunea, 4  
 Tel. 943 894 024  
 Fax. 943 130 144  
 20809 AIA - ORIO







## Oroimenaren kutxa

Argazkia Esteban Goikoetxea *Oltzu* moilan ito zen egunekoa da. EZEZAGUNA, IBAN EGIGURENEK UTZIA

# Moilako argazki zahar batetik

**A**rgazkia Juantxo harategiko paretan dago jarrita. Ederra da, 1979ko martxoaren 20an egina. Orioko herria erakusten du, orain dela ia 40 urtekoa. Maria Patxerrikondo zenak eman zion argazkia Juantxori, opari, Maria Ostolazak. Amu ederra da argazkia. Aukera ona ematen du harakinaren eta bezeroen arteko elkarrikeria sortzeko. Juantxo ondo konturatzen da dendan, bezeroetatik nortzuk gelditzen diren argazkiari begira: 40 urtetik gorako oriotarrak, garai hura ezagutu zutenak.

Oñatin jaio izanagatik, Juantxok ezagutu zuen garai hartako Orioko eta, harategiko bezeroa argazkiari begira zela, berehala ekin zion azalpenak emateari: *Kontatu, kontatu zenbat bapore dauden lotuta moilan, herrikoak 25 eta kanpoko bi. Egin kontu, bapore bakoitzean 15 bat gizon, 375 arrantzale, eta ia denak Oriokoak bertakoak. Arrantzaleek orduan lehorrerako langileek baino diru dexente gehiago ekartzen zuten. Itsasotik etortzen zirenean herria festa bat izaten zen. Pentsatu gizon haiek denak kalean, diru freskoarekin, tabernak eta jatetxeak denak beteta, eta bestelako dendak ere bai.*

Ondoko hauek dira egun hartan moilan lotuta zeuden Orioko 25 baporeak, zubitik eta moilatik hasita, lerroka: Ave Maria, Corazon Santo, Zeruko Ama eta San Jose// Ipar, Madre del Cantabrico, Madre del Mediterraneo, Gure Gogoia eta Villa Real// Kukuarri, Tubal berria, San Antonio, Beti San Nikolas, Gure Naia eta Pablo VI// San Juan, Reina de los Angeles, Aita Guria, Nuevo San Luis eta Beti San Luis// San Martin, Reina Maria, Mater Inmaculada eta Villa San Nicolas. Argazkian bat falta da herriko baporetatik: Aingeru Guardakoa.

Txantxa egiteko aukera ederra ematen dute baporeen izenek, ia denak erlijio katolikoari lotutakoak direla kontuan hartuta, Batikanoaren flota dela esateko aukera ematen

dute.

Harrigarria da zenbateraino zegoen sustraitua arrantzako giroa, ohiturak eta kultura orduan Orion. Garai hura ezagutu zuten arrantzale asko gauza dira argazkiari erreparatu eta banan-banan bapore guztien izenak esateko. Horregatik, erraz lortu ditugu baporeen izenak. Jose Ignacio Urdangarin Xierbak ondo gogoan ditu bapore guztien izenak, baita moilan konponketa lanetarako lotuta zeuden bi frantsesena ere: Douce France eta Macarens. Xierba eta Juan Antonio Azkueren artean dago osatuta baporeen zerrenda.

Juantxok hizketan segitzen du, argazkiak garai hartako Orioko giroa gogora ekarrita, berehala aipatuko du zenbaterainoko lan pila zegoen orduan herrian: *Ez zen arrantza bakarrik, pentsazenbat tailer zegoen herri barruan, orain ez daudenak: Zaldua, Ondozabal, Aramendi, Andu Txiki, Frantses fabrika, Conservas Azkue...; ogia bertan egiten zuten hiru panaderia: Iturain, Marrota eta Leunda; hiru hotel: Esnal, Salsamendi eta Toki Alai; bi sala de juego: Mari Carmenena eta Boxtekoariyarena; bi diskoteka: Txirla eta Ollagorra...*

Juantxok iragan minez hitz egiten du Orioko hartaz. Haren hitzek gogoeta egiteko balio dute. Aldaketa-garaiak ziren haiek. 1979, frankismo bukatu berri hartan, artean lehenengo udal hauteskundeak egin gabe, alkate Jesus Mari Aiestaran. Autopistako zubi zatar hori ere egin berri samarra. Handik aurrera gauza asko hasiko ziren aldatzen. Tailerrak, pixkana, herritik kanpora ateratzen, baporeak tantaka galtzen, gero eta gutxiago. Gaur egun 5 geratzen dira, 25etik 5era...

Argazkian, begirada plazan pausatuz gero, ikusten da orduan egiten ari zirela plaza. Posteak ikusten dira, baina haien gaineko txapela artean eman gabe zegoen.

# Batzen gaituena



Egoitz Dorronsoro

**Azken bi hamarkadatan biktima kontzeptua demokratizatu egin da. Ordura arte ETArek biktimek monopolizaturiko kontzeptua izanik, era guztietako biktimak egotera igaro da.**

Azken bi hamarkadetan biktima kontzeptua demokratizatu egin da. Ordura arte ETArek biktimek monopolizaturiko kontzeptua izanik, era guztietako biktimak egotera igaro da, zakurrek hortzaka egindako biktimen elkarrekin ere egotera. Ez naiz sartuko zein diren besteak baino biktimagoak, edo zeintzuk duten biktima izena erabiltzeko zilegitasuna. Biktima izateko kausa albo batera utziz, interesatzen zaidana hau da: zerk batzen dituen biktima denak eta gainontzeko gizartea. Horretarako Judith Buttler filosofoaren ideiak erabiliko ditut.

Pertsona guztiak zaintza kateen katebegi gara. Denak izanik zaurgarri kate begietako bat apurtzera. Hauetako bat apurtzean, sufrimendua, mina eta dolua agertzen dugu, zaintzen genuen edo eta zaintzen gintuen pertsonaren egoera aldatu delako. Beraz, pertsona guztiak batzen gaituen ezaugarria katebegiak apurtzeko zaurgarritasun izaera da, bulnerable izatea. Buttlerren hitzetan, denok gara biktima potentzialak.

Azken esaldiari tiraka. Pertsona oro eta biktimen arteko

aldea, zaintza katea apurtzeko eran dago. Nolabait ere, biktimei, katea zoriz apurtu beharrean apurtuarazi egiten baitzaie. Egoera honetan periferiako hiritar bat izatera igarotzen da, hiritar ez oso bat. Gero, biktimek, sufrimenduaren intentsitatearen aterkipean, eszena publikoan toki gehiago eskatzen dute. Hor dago akatsa, sufrimendua naturalizatzean. Funtsean, zaintza katea edozerk apurturik ere, biktima oro batzen duena sufrimendua da. Horrenbestez, denok izanik zaintza katea apurtarazteko zaurgarri, denok dugu sufrimenduzko eszenatoki bat bizitzeko aukera. Beraz, zaurgarritasuna izanik denok batzen gaituena, biktimei singularitasuna gutxitzen zaie. Hiritargo osoak biktima izateko aukerak dituen ezaugarrian ipiniz begirada.

Puntu horretatik habiatuz, fokua zaintza sisteman jarri behar dela deritzot, zaintza sistema modurik zabalenean ulerturik. Helburua biktimak ahalduntzea da, biktima izaera gaunditzeko, eta ez sufrimendua naturalizatuz eta betikotuz. Biolentzia matxista jasan duten emakume askok egin duten gisan. Historia eta errelatoa ahaztu gabe, berriz ere hiritar oso izateko.

ERRENTA2016  
gipuzkoa.eus  
902 100 040

Gipuzkoako  
Foru Aldundia  
Diputazio Foral  
de Gipuzkoa



ORAIN  
GIPUZKOA

## ZURE EKARPENAK, EGUNEROKOAN ONURA. GOGOAN HARTU.

Aurten, aurrekontuaren ia erdia bideratu da gizarte politiketara. Ekonomia sustatzea eta enplegua sortzea ere lehentasuna dira. Hori, eta gehiago. Eta guztia, zu onuradun izan zaitezten.



**Mari Karmen,**  
donostiarra.  
Erretiratua.

- A** 8 milioi € Pasalaldea biziberritzeko.
- B** Erreferentziazko Zahartze eta Osasun Zentro Aurreratuaren sorrera Pasalan.
- C** Mendekotasun laguntzak jasotzen dituzte 16.000 pertsonak hilabetero.
- D** 5.000 pertsonak laguntza jasotzen dute etxean. Atsedeen programak zaintzailearentzako.
- E** Lurraldebus: erretiratuentzat tarifa bereziak, %100eko hobariekin.
- F** Kultur ekitaldi handiei laguntza: Zinemaldia, Jazzaldia...



KARKARA



KARKARA



KARKARA



KARKARA

## Korrika koloretsua ordu txikitan

01:00ak inguruan iritsi zen 20. Korrika Oriora, apirilaren 5ean. Eguraldia lagun izan ez bazuen ere, ehunka herritar kalera atera ziren euskararen aldeko aldarriarekin bat egitera. Ordu batzuk lehenago, arratsaldez, Orioko eta Aiako ikasleak atera ziren kalera, Korrika txikian.



KARKARA



KARKARA



U.K. HITZA



U.K. HITZA



U.K. HITZA



U.K. HITZA



U.K. HITZA

# Fontana: iturgintza zerbitzu berria

**Jose Antonio Urain**

Iturgina

25 urtetik gorako esperientzia du Jose Antoniok iturgin lanetan. *Fontana* gisa da ezagun herrian, eta izen berarekin zabaldu du Orion iturgindegia eta denda berria.



## Esperientzia zabala duzu sektorean.

Oso gazte hasi nintzen iturgin lanetan, bai. Asko ibili naiz herri batetik bestera furgonetan, 24 orduko zerbitzu irekia eskainiz matxurak konpontzen.

Larrialdi batetik deitzen dizutenean, ez dakizu zer topatuko duzun, eta denetik egitea tokatu zait. Eskarmentu handia hartu dut lan horiek egiten.

## Denda berria ireki duzue herrian, moila parean.

Aspalditik nuen Orion halako zerbait zabalteko nahia. Asko gustatzen zait nire lanbidea, eta banuen urrats profesional hau emateko gogoia. Denda ireki eta kalean egonda, errazagoa da bezeroekin konfiantzazko harremanak sortzea.

## Zer eskaintzen duzue?

Iturgintzari dagokionean, denetik: komun eta sukaldeen instalazioa, etxe blokeen mantenua, ur jarioren lokalizazio eta konponketak, desbuxaketak, bainuontziak kendu eta dutzak instalatzea...

## Gas instalazioak manipulatzeko ere homologazio guztiak dituzue.

Hala da, bai, zertifikatu eta akreditazio guztiak dauzkagu gas naturala, propano edo butano instalazioetan eskua sartu ahal izateko. Hori da gure indarguneetako bat.

## Zer gehiago?

Mota askotako berotze sistemen konponketa eta mantenu zerbitzuak ere eskaintzen ditugu: aluminio, altzairu

eta burdinazko berogailuak, kobrezko hodian instalazioak, beroa irradatzen duten lurzorua...

## Azken urtetan, asko aldatu da iturgintza mundua?

Bai, eta niretzat garrantzia handia du etengabe ikasi eta eboluzionatzen joateak. Herrian zabalduko lokalarekin, erronka profesional berria dut aurrean eta irrikatan nago bezeroei zerbitzu onena ematen saiatzeko.

## Zein bereizgarri du zuen enpresak?

24 orduko zerbitzua eskaintzen dugu urteko egun guztietan, larrialdiei erantzuteko. Profesionaltasun handiz egiten dugu lan, txukun, eta prezio onak dauzkagu. Gertutasun eta konfiantza handienaz tratatzen ditugu bezeroak.

**Fontana Iturgintza**

Endaia Plaza 1, 20810 Orío, Tel. 943 53 98 88 / 661 252 828, fontana-ju@hotmail.es

# Zientziak emakumeak behar ditu

**Emakumeek milaka urte eman zituzten sendabelarrak erabiltzen gaixoak sendatzeko, umiltasunez, eta gizonezkoak lan horietan sartu zirenean bihurtu zen medikuntza, zientzia.**

**N**alean *zientzia* hitza esaten dudan bakoitzean, halako deserosotasun bat nabaritzen dut inguruan. Jendeak pauso bat atzera egingo balu bezala. Batez ere emakumeek. *Nola da posible* –galdetu izan diot mila bider nire buruari– *horrelako gauza liluragarriak halako erreakzioa eragitea? Gizateriak dituen erronka intelektual handienetakoak erantzun nahian dabil, eta nola liteke ez iruditzea erakargarri?*

Orain lotsatu egiten naiz nire hausnarketa horiek gogoratzen ditudanean. Argi ikusten dut zientzia dela bere aurrean jendeak pausu bat atzera egitearen erruduna. Izan ere, zein da zientzialari baten estereotipoa: gizon oso adimentsua, bikaina, hotza eta objektiboa, agian? Zeinek ez luke atzera egingo halako ezau-garrien aurrean? Zein ez da sentituko inseguru, halako indar-erakustaldi baten aurrean? Niri ere pausu bat atzera egiteko gogoia etorri zait bat-batean.

Zientziak emakumeak behar ditu; horixe etorri zait burura. Zientziari astindu bat emateko. Emakumeek milaka urte eman zituzten sendabelarrak erabiltzen gaixoak sendatzeko, umiltasunez, eta gizonezkoak lan horietan sartu zirenean bihurtu zen *medikuntza, zientzia*. Orain, zientzia-sistema bera umiltasun-faltaz gaixo dagoen honetan, emakume zientzialariak bueltako bidea egin eta umiltasunez jantzi dezakete zientzia.

Gainera, zientzia objektiboa izaten saiatzen den arren, argi izan behar dugu gure begiradatik eta mundu-ikuskeratik egiten dugun heinean, derrigor dela partziala. Zientziak jada erakutsi du hankamotz geratu dela. Adibidez, medikuntzan emakumeen fisiologia kontuan hartu ez izanak, alferrikako botika asko garatzea ekarri du. Baita emakumeoi kalte egin diguten botikak. Milioika euroko galerak. Hortaz, zientziak aniztasuna behar du: behar ditu emakumeak, beste etniatako pertsonak, beste maila sozio-ekonomikoetako pertsonak... Haien ideiak, haien mundu-ikuspegia, haien lan egiteko moduak, haien sormena... Aniztasun horren isla izango baita zientziaren emaitza, gizartearen norabidea.

Beraz, zientzia-sistemak ahalegina egin beharko du haiei tokia egiteko, baita curriculum akademikoa itxuraz hain brillantea ez duten horiei. Eman diezaiogun balioa sentikortasunari, sormenari, taldean lan egiteko gaitasunari, irekitasunari, intuizioari... Hori bai, zientzia-sistemak baliabideak jarri beharko ditu, emakumeak barruan nahi baditu. Emakumeok ditugun berezitasunak aintzat hartu eta bere egin beharko ditu: izan ere, emakumeok, zientziari eman diezaiokeguna bezain ederra den beste zerbaite ere badugu aukeran: bizia sortzea. Hortaz, zientzia-sistemak kontuan hartu beharko du emakume batzuek nahiko dutela denbora batez zientzia utzi, eta biziak egin dien opari hori beren zentzumen guztiekin gozatu. Eta haien amatasun-sena ase ondoren, berriz itzuliko direla zientziara, pasioz lan egitera. Berdin aitatasunaz gozatu nahi duten gizon zientzialariak, noski, zientziak ezin baigaitu bizitzatik deskonektatu.



Aitziber Agirre

# azkue

## karrozeria



Ubegun industrialdea, 7  
20809 Aia-Orio  
Tf/fax: 943 83 51 86  
carroceriasazkue@hotmail.com

**GARMENDIA**  
HIEZIN AGENTZIA - AHOLKULARITZA - ASEGURUAK

Ibai Ondo, 1  
Tel.: 943 834 466 - Fax: 943 132 941  
informacion@garmendiagestion.com

**Joana Murgiondo**  
Aseguru-agenzia

ASEGURUAK

C C I  
CARASA, CIVISTI, LACORT Y CIA, S.A.

Abeslari, 4- 2. esk.  
Tfnoa: 943 13 46 07

**Seguros Bilbao**

Tel: 943 111 600  
688 714 869

Santi Barranco  
Orioko ordezkaria  
e-posta: sbarranco@segurosbilbao.com

**azkue**

Tf: 943 130 438

**azkue**

**urbide**  
iturginak s.l.

Iturgintza - Berogintza

Birkata Kalea, 4  
20800 Zarautz  
943 890 069  
urbideiturginak@gmail.com  
www.urbide.es

**URANGA**  
burdindegia

Opari, menaje eta erremintak

fer.uranga@euskaInet.net  
Telefax: 943 8312 36 Eusko Gudari, 5

Imanol Illarramendi  
Aia (Gipuzkoa)

**KORTABERRI**  
arotz lanak

kortaberri.arotza@hotmail.com 665 70 33 47

**Alustiza Autobusak**  
Alustiza Bidaiak S.L.

Autobus litera eta  
16, 19, 25 eta 56 plazakoak.  
Bidalatu eta ezkontzetara edo sagardotegira joateko.

Tel. 943 13 28 93, 83 08 80. Mugikorra: 656 78 30 01, 656 78 29 99

**TAILER MEKANIKOA AUTO LAN**

Pelotari 5, Orio  
943 83 00 34

Zure Konfidantzazko  
**Gertuko Tailerra**

**ANOBGA TXIBI S.L**  
KRISTALDEGIA

-komertzial instalazioak - beira bikoitza  
-segurtasun beirak -dutxa-itxiturak eta irristailuak  
-ispiluak -barandak -kristal mota guztiak...

Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA 943 37 17 33- 610 45 93 45

**IGLESIAS**  
SARRAILAGILEAK

24 OREKO ZERBITZUA

Javier Iglesias Fernández  
637 723 308  
iglesiascarrajaeros@yahoo.es  
ZOBIO ORIO

- ATEAK INKOTZEN DITUGU
- SARRAILA -ZILINDRO ALDAKETAK
- ATEAK IXTEKO MALDURIEN ALDAKETA
- KOMUNITATERENTZAKO ZERBITZUA



# Herritarrek erabakitze eskubidearen alde

Maiatzaren 7an egingo da Orion Gure Esku Dagoren herri galdeketa. **Nahi al duzu euskal estatu burujabe bateko herritar izan?** galderari erantzungo diote herritarrek. Festa giroan egin nahi dute eguna.

TESTUA: M. GARCIA ETXEBERRIA

ARGAZKIAK: BALIZA ELKARTEA

2013. urtean hasi zen Gure Esku Dago mugimendua, Irungo Ficoban eginiko aurkezpen xume batekin. Euskal Herria herri bat dela esan genuen, eta erabakitze eskubidea euskal herritarrei dagokiela. Urtebete beranduago, 2014ko ekainaren 8an, 150.000 lagunetik gora ziren erabakitze eskubidearen alde agertu zirenak, Durangotik Iruñera egin zuten giza katean.

Mosaiko erraldoia Zurriolako hondartzan, hautetsontziak Euskal Herriko bost hiriburuetan... Behin indarrak hartuta, saretze bidea hartu zuen Gure Esku Dago mugimenduak eta nazio mailatik herri mailara pasa zen.

## Baliza elkarteak, sinadurak eta herri galdeketa

Herri galdeketa lehen olatuarekin batera sendotu zen Orion Gure Esku Dago taldea, gerora Baliza elkarteak izango zena. 2016ko azaroaren 23an aurkeztu zuten jendaurrean erabakitze eskubidearen inguruko herri galdeketa bideratu duen elkarteak. Herriko eragile eta norbanako askoren babesa jaso zuten Salatxo aretoan eginiko ekitaldi jendetsuan.

2016ko abenduaren 16an Urola Kostako Gure Esku Dagok eskualdeko aurkezpena egin zuen Zarautzen. Egun hartan, Baliza Elkarteak sinadura bilketa hasi zuen herri galdeketa martxan jartzeko. 615 sinadura bildu zituzten guztira.

Maiatzaren gerturatzen ari den bezala, herriko eragile eta norbanakoen atxikimenduak biltzen joan da elkarteak. Azkenik, hilaren 7an, herri galdeketaarekin jarriko diote puntua urteetako ibilbideari. *Nahi al duzu euskal estatu burujabe bateko herritar izan?* izango da botopaperetan irakurriko den galdera.





## ZENBAKIA

## 615

**Sinadura.** 2016ko abenduaren 16an hasi zen Baliza elkartearen herri galdeketa aldeko sinadura bilketa. 16 urtetik gorako errodaren %10aren sinadurak jasotzea zuten helburu. Eta lortu zuten; 2017ko urtarrilaren 16an amaitu zen bilketa eta 615 sinadura zituzten orduan, behar zituztenak baino 141 gehiago.

## Nola bozkatu

Maiatzaren 7an 16 urte beteta dituen eta Orion erroldatuta dagoen edozeinek eman dezake bozka galdeketa. Bi aukera daude horretarako: aurretiko botoa eta galdeketa egunekoa.

Apirilaren 28tik maiatzaren 5era eman daiteke aurretiko botoa, Baliza elkartearen lokalean –Aritzaga kalea, 1–. Hau izango da egun horietako ordutegia:

- Apirilak 29, larunbata: 13:00 - 14:00
- Apirilak 30, igandea: 13:00- 14:30
- Maiatzak 1, astelehena: 18:00 - 19:30
- Maiatzak 2, asteartea: 11:00 - 12:30
- Maiatzak 3, asteazkena: 18:00 - 19:30
- Maiatzak 4, osteguna: 11:00 - 12:30
- Maiatzak 5, ostirala: 18:00 - 19:30

Horrez gain, hilaren 5ean, ostiralean, Anibarko Portura joango dira Baliza elkarteak eta bozka aurreratua han ere eman ahal izango da. 18:00etatik 19:30era egongo dira auzoan. Etxetik mugitzeko zailtasunak dituzten pertsonak ere bozkatzeko aukera izango dute, 688 605 746 telefono zenbakira deituta edo lokalean hitzordua hartuta. Jarraipen batzordeko hiru kide joango zaizkio etxera botoaren bila.

Galdeketa egunean, maiatzaren 7an, bi postu egongo dira herrian egun osoan zehar: guneetako bat herriko plazan egongo da eta bestea Ikastola aurreko plazan. Botoa eman nahi duenak 9:00etatik 20:00etara egin dezake leku horietako batean. Herritarrak berak aukeratu dezake zein gunetan bozkatu nahi duen.

Botoa ematerako garaian, Orion erroldatuta dagoela ziurtatzen duen dokumentazioa aurkeztu beharko du herritarrak. Gehienek NANarekin nahikoa izango dute, baina Nortasun Agiria eskura ez dutenek edo bertan beste herri bateko helbidea dutenek 2017ko errolda agiria ere aurkeztu beharko dute. Hainbat aukera daude:

- Pasaporte eta errolda agiria
- Gidabaimena eta errolda agiria
- EHNA eta errolda agiria
- Bizileku txartela edo Nortasun Agiria
- Jatorrizko estatuak emandako nortasun txartela edo pasaporte eta errolda agiria
- Nortasun Agiri Nazionala, errolda agiria eta osakidetzako txartela –atzerritarren kasuan–.

## Maiatzaren 7a festa giroan

Esan bezala, bozka emateko bi gune egongo dira Orion: plazan eta Ikastola aurreko plazan. Gune bakoitzean bi mahi egongo dira hautetsontziekin eta, horietan, boluntarioak egongo dira botoak jasotzen. Kanpoko zenbait begirale ere etorriko dira galdeketa ikuskatzera, horien artean Jon Sarasua izango da. Jarraipen batzordearekin batera, bozketak eta kontaketa modu egokian egiten direla ziurtatzea izango da beren lana.

Herri galdeketa eguna festa eguna izatea nahi dute Baliza elkarteak. Horretarako, egitarau zabala antolatu dute. Agurrarekin irekiko dituzte guneak eta ttuntturroak, txaranga, umeen jolasak, zuzeneko musika eta askoz gehiago izango dira egunean zehar.

## Atxikimenduak:

Etxeluze Gaztetxea
Senegaldarren komunitatea
Orioko arrantzaleak
Orio AEko mutilak
Orio AEko neskek
Orioko arraun entrenatzaileak
Txurumuski elkarte
OBB sofbol taldea
Orioko mezkita
Orioko EH Bildu
Esperietzia eskola
Udaletxeko zinegotzi eta alkateak
GuraSOS
Orioko Herri Ikastolako gurasoak
Orioko Herri Ikastolako langileak
Joseba Ostolazaren harri eskola
Orioko Futbol Taldea
Herri Natur Taldea
Orioko Curriculum
Talai Mendi Txaranga
Talai Mendi dantza taldea
Orioko Xaltxerak
Orioko Saregileak
Lera taldea
Harribil dantza taldea
Gozategi musika eskola
Errikotxia
Anibarko Portuko auzo elkarte
Orioko Mirotzak areto futbol taldea
Orioko Etxerat
Jon Azkue eskubaloi jokalaria
Zarageta Herri Eskola

# “Ebaluazioaren kontzeptua zabalduz, azterketei presioa kendu behar diegu”

**Ruben Iglesias**

Hezitzailea

Ruben Iglesiasek urteak daramatza hezkuntzako hainbat alorretan lanean. Aurten, LAB sindikatuaren eskutik, ebaluazioaren gaia sakon lantzen dihardu, hezkuntza iraultzeko giltzetako bat hori delakoan.

## IÑIGO GAITON

Ebaluazioa kalifikazioarekin nahasten da sarri, notekin, eta ikasle guraso zein irakasleek presioz bizi dute. Ebaluatzeke modua aldatuz gero, *hezkuntzaren ikuspegi orokorra irauliko genuke* dio Rubenek konbentzituta. *Pertsona osotasunean hezi eta ebaluatu behar da.*

### **Ia denok bizi izan dugu presiopean azterketa garaia.**

Hala da, bai. Familietan tentsio egoera handia sortzen da, ikasleez gain guraso asko ere urduri jartzen baitira. Azterketei karga kendu nahi diegu, ikasleak modu zabalagoan ebaluatzeke. Helburua beharrean, irakaskuntza-ikaskuntza prozesuaren pieza bat gehiago izan behar du ebaluazioak, ikaslearen ikasketa prozesua hobetzen lagun dezan.

### **Ebaluatzeke sistema aldatzea hezkuntza iraultzeko giltza delakoan zaudete.**

Gaia beti egon da pil pilean. Ikasturte honetan garrantzia handia du bereziki, LOMCEk eta Heziberrik inplementatutako kanpo probak egingo baitira. Bestalde, PISAko emaitzak ere atera ziren neguan, EAEko hezkuntzaren kalitatea jaitsi dela esanez. Zer da, baina, emaitza hauetan neurtzen dena? Eta nola? Galdera hauek mahai gainean jarri eta eztabaida piztuta, hezkuntza eredu berria sortzen hasteko oinarriak finka ditzakegula uste dugu.

### **Ebaluazioa eta kalifikazioa. Zertan bereizten dira?**

Kalifikatzea ikasleen jarduna nota batekin laburbiltzea da. Guztion gaitasunak ezberdinak izanik, ikasleak estandar berraren baitan kalifikatzen ditugu. Pertsonalki, irakasle gisa oso zaila egiten zait ikasleen jarduna egungo parametroetan neurtzea. Azterketa bat suspenditu duen ikasleak, adibidez, izugarritzko garapen pertsonala izan dezake hiruhileko horretan. Hori da neurtu beharrekoa, bidean egindako ahalegina balioan jarritz.

Beste ikasle batek kolpe zorririk jo gabe 8 bat atera dezake, berez azkarra delako. Baina horrek, ikasi du zerbait? Pertsona bezala garatu al da? Ebaluazioa kalifikazioa baino kontzeptu zabalagoa da, eta guk ikasleen garapenari lagunduko dion ebaluazio sistema berria aldarrikatzen dugu.

### **Nola egiten da hori?**

Oinarria ikasle, irakasle eta gurasoen eskema mentalak berr-sortzean dago. Azterketa eta kalifikazio sistema tradizionalak barruraino sartuta ditugu denok: familiak ohituta daude etxean buletin bat jaso eta horren arabera seme-alaben ibilbide akademikoak epaitzen.

### **Buletinek idatziz egindako azterketen notak izan ohi dituzte oinarrian.**

Bai, eta kasu gehienetan etsamin horiek memoriak ikasteko gaitasuna neurtzen dute.

Zoriontsu izateko eta bizitzan aurrera egiteko garrantzitsuagoak izan daitezkeen kapazitateak ere ebaluatu behar dira: kreatibitatea, erabakiak hartzeko autonomia, erlazioak kudeatzeko gaitasuna...

### **Nola neurtu daitezke horiek?**

Familia, hezitzaile eta ikasleen arteko harremanak indartu eta behaketa bidez. Adimen emozionala da heziketa egoki baterako motorra, eta ikasleak mentalki orekatuta egon behar du ikasteko, gustura, zoriontsu. Gurasoen banaketak, heriotzak, gaixotasunak, sexualitatearen kudeaketa... errendimendu akademikoan eragin zuzena duten faktore asko daude, eta ebaluazio sistema eraginkor batek horiek guztiak hartu beharke lituzke kontuan.

### **Ikasleen notetan eragiten duten beste faktoreak ere aztertu behar direla diozue.**

Berritzeguneak, inspektoreak, hezkuntza proiektuak... ez



“Zoriontsu izateko eta bizitzan aurrera egiteko garrantzitsuak diren kapazitateak ere ebaluatu behar dira.”

dira behar beste kontrolatzen, eta kalifikazioen zama ikasle eta irakasleen gain geratzen da. Ez da zilegi.

**Dagoeneko ari zarete ikastetxe pilotu batzuekin lanean.**

Bai, Hego Euskal Herriko 20 ikastetxetan. Oraingo ebaluazio sistemaren ezaugarrien inguruko entzute eta hausnarketa fasean gaude. Hezitzaileek ebaluazioa nola bizitzen duten jakin nahi dugu lehen eskutik, zein hutsune edo gabezia dituen identifikatzeko. Irakasle askok diotenaren arabera, egungo ereduak goia jo du, zaharkituta geratu da.

Elkarlanean, ebaluazio sistema berri baterako oinarriak finkatzen ari gara.

**Legeak ematen al digu aukerarik herri gisa nolako kanpo ebaluazioa nahi dugun erabakitzeko?**

Momentu honetan ez, Espainiako eta Frantziako estatuen legedien barne baikaude. Ebaluazio sistema berria ezin dugu nahieran diseinatu, mugak dauzkagu. Argi dagoena zera da, gure helburura iristeko desobedientzia ariketa txikiak egiten jarraitzea besterik ez zaigula geratzen.

(...)

Hau guztia *Iruten* filosofiaren baitan kokatzen dugu. Orain dela bizpahiru ikasturte herrian landu genuen Orioko Curriculum proiektutik eratorritako kontzeptu edo lanmetodologia da: hezkuntza komunitatea saretuz, kanpotik ezarri nahi dizkiguten legeei guk sortutako proiektuekin aurre egitea aldarrikatzen dugu.

Kasu honetan, Euskal Herriak ebaluaziorako tresna edo egitura propioa sortzea da xedea. Guk erabaki behar dugu zer irizpide edo parametroren baitan sortu nahi dugun sistema hori: ikasleen zoriontasunari eta kohesio sozialari begira, harreman osasuntsuak izateko gaitasuna kontuan hartuz, kreatibitateari behar duen garrantzia emanaz...



IBAI ONDO 1, BEHE-OINA WWW.SINERGIA-WEB.COM  
TF.: 943 130 577 685 718 595

**LESIOAK:** BIHURDURAK, TENDINITISAK, ZAINTIRATUAK, KONTRAKTURAK, HANKA HANDITUAK, ARTROSIA, ALTERAZIO POSTURALAK, BIZKAR HEZURREKO ARAZOAK, ARNAS GAIXOTASUNAK HAUR ETA HELDUETAN, LESIO NEUROLOGIKOAK, HAURDUNALDIRAKO TRATAMENDU BEREZIAK, ERDITZE ONDORENGO ERREKUPERAZIOA

**TRATAMENDUAK:** TERAPIA MANUALA, OSTEOPATIA, RPG, MASAJEAK, DRAINATZE LINFATIKOAK, ARNAS FISIOterapiA, KINESOTAPIA-A, PILATES, ABDOMINALETAKO GIMNASIA HIPOPRESIBOA (GAH)



Maidor Arrilaga Sarasola · 138. Kol. zenb.  
Arrantzale 63 · 20810 · Orio · Gipuzkoa  
Tel. 943 575 361

**oinarri**  
PODOLOGIA ZENTROA

**2GURPIL**

Baxoalde 2 - 3 · 20810 Orio (Gipuzkoa)

T 943 835 980 W www.2gurpil.com E bigurpil@hotmail.com

**Orioko Herri Ikastola**

Guraso Kooperatiba  
ABESLARI KALEA, 8  
TEL: 943 83 47 04  
FAX: 943 13 09 38  
orio@ikastola.net  
www.oriokoikastola.net

**OREKA FISIOterapiA**

Tendinitisak  
Lumbalgiak  
Artrosia  
Zefaleak

Masaje terapeutikoa,  
hentsoak, akupuntura  
erakuzko terapia,  
osteopatia

**943 13 35 37**  
Aritzaga kalea, 11 behea

**ORIA hortz klinika**

Amantzale kalea, 63 behea  
20810 ORIO  
Tel.: 943 83 36 45

Orio Hortz Klinikak **ORFODONTZIA** zerbitzu berria jartzen du martxoan.  
Prebentzioa ezinbestekoa dela jakinda, hartu aurre-erorkuntzean sar daitezkeen arazoak.

**ITZIAR**

kirolak

Tel. 943 83 31 03

**KAIJOA**

Arropa  
Oinetakoak  
Osagarriak

Amantzale kalea, 1  
T 943 134 885  
ORIO (Gipuzkoa)

Zorro kalea, 18  
15. Paratzeak kalearekin idurri  
T 943 021 034  
ZARAUZ (Gipuzkoa)

Erbera kalea, 10  
T 943 543 000  
ZUMAIA (Gipuzkoa)

www.kaioa.es

**ELEKTRIZITATEA**  
Ander Expósito  
943 831 774  
600 856 728  
anderexpoelektrizitatea@gmail.com

EGIN ZAITEZ

**Karkara.eus**

KOMUNITATEKO KIDE

**EKILORE GARBIKETAK**

626417841  
ekilore@outlook.es

**ORION UDA SASOIAN 2017**  
MILA AUKERA UDARA HONTAN!

943 894 428 · orio@bpxport.es

**KARELA**

le apaindegia  
**MARIJO**

Neska eta mutilentzat

Eusko Gudari, 8 - behea  
Tel. 943 13 47 29  
ORIO

**URAITZ**  
Lurrindegia  
jantzi osagarriak

Endara 3 Tfno: 943 83 18 97



# Gure maisu Eugenio Arbilla jauna

**M**aria Auxiliadora ontziari buruz Karkaran eginiko erreportajeak Galiziako Baionan bizi den oriotar baten –Mari Carmen Arbilla– eta bere sendiaren sentimendua piztu zuen. Botadurako argazkia eskatu zidan eta nik beste argazki honekin batera helarazi nion hura.

Mari Carmenen aita zen Eugenio Arbilla jauna, gure maisua. 1963- 1964 kurtso-ko ikasleak agertzen gara argazkian berarekin, gure eskola kofradiako gela bat zen, eta hango atarian atera zigun Ramirok. 10 eta 14 urte bitartean genituen garai hartan. Eskolan ateratako bere azken argazkia da ziurrenik, hurrengo urtean gaitotasunagatik erretiroa hartu baitzuen kurtso erdian.

Gure maisu *Don Eugenio* jenez bizi zen, askorentzt gogorra. Nik ere jaso nuen kazkarreko bat edo beste harekin egondako bi ikasturteetan, baina irakasle trebea zela esan behar dut.

Orioko itsas-gizon askok ere eskertu izan dute Eugenio Arbillarekin ikasi izana. Izan ere, bere nautikako jakinduriari esker, patroiz titulua ateratzean goi mailako notarekin gelditzen ziren gehienak.

Hauek gara argazkikoak:

**Zutik:** Juan Antonio Gonzalez, Matias –abizen ezezaguna–, ezezaguna, Agustin Herrero, Jesus M<sup>a</sup> Perona, Martin Perona, Agustin Lopetegi, Iñaki Arrillaga, Jose Ignacio Ostolaza *Xalbardin*, Santiago Gurrutxaga, Pepe Gonzalez, Patxi Oliden, Juan Jose Mateos *Navarro*, Teodoro Martikorena.

**Erdian:** Pedro M<sup>a</sup> Barrenetxea, Eugenio Tamayo, Sebastian Mujika *Itsaspe*, Juan Ignacio Peña, Bitoriano Larraza *Asuero*, Fermin Aldalur, Javier Manterola *Txaga*, Pedro M<sup>a</sup> Solaberrieta, Jexux Lizarreta *Xoxua*, Jose M<sup>a</sup> Gozategi *Karraballo*, Jose Antonio Urkizu, Jose Migel Brit, Jesus M<sup>a</sup> Garmendia.

**Eserita:** Javier Rodrigo, Jesus M<sup>a</sup> Egibar *Erretzabal*, Manuel M<sup>a</sup> Uranga, Rafael Salsamendi, Pedro Casado, Carlos Barbas, Marcelino Lertxundi *Uxkun*, Felipe Lopez, Jose M<sup>a</sup> Lertxundi *Uxkun*, Angel Jimeno, Alejandro Ortega, Martin Uranga *Aldape*.

Eskerrak Jose Ignacio Ostolazari, Iñaki Arrillagari eta Anjel Jimenori, memoriaren azalpenetan laguntzeagatik.

J.M. PERONA

Txoko honetan erakusteko moduko argazki zaharren bat baldin badaukazu, ekarri Karkarara eta gustu handiz argitaratuko dugu, zuk eka-rritakoa dela jarrita.



**Zarautz**  
Hileta Zerbitzuak

- > Hilerrien kudeaketa
- > Hileta zerbitzu orokorrak
- > Zerbitzu iraunkorra



**Harrespil**  
Hilerri Zerbitzuak



Araba kalea, 35 · ZARAUTZ · Gipuzkoa · Tel.: 943-89 49 37 · Faxa: 943-89 49 41 · e-posta: zarautz@harrespil.net



**ETXEKO BEREZITASUNAK**  
**ARRAIN ZOPA**  
**PARRILA**

**BODEGON SARASUA**  
ENRETTIGIA



Eusko Gudari Kalea, 29-20810 ORIO · Tel.: 943 83 00 05



**PATXI OLIDEN**

Hemengo haragia.  
Etxeko produktuak: tripaki, odolki, txekorra, txorizo, kroketak...

Eusko Gudari, 25 Tel. 943 83 00 10

**arkaitz taberna**  
orio

- Ogitartekoak - Pintxoak
- Plater konbinatuak
- Karta

Terraza ederrarekin  
Giro ezin hobea

**abeslari kalea 6 - 943 831 657**

**LEUNDA OKINDEGIA**

**ORDUTEGI ALDAPAKETA** 943 89 00 67

asteleheneretik-larunbaterra igande eta jai-egunetan  
7.00-13.30 / 17.00-20.30 7.00-13.30

**BODEGAS Gailur**

91000 BURGOS 41 41840  
Tel./Fax 943 83 54 52  
www.bodegasgailur.com  
Amalux Erronza

**ZUDUGARAI**



Galea Trikolore

Tel. 943 83 03 80  
Fax 943 83 54 52  
bakoizudugarai@bakoizudugarai.net  
www.bakoizudugarai.com



Izena:

Abizenak:

Nortasun agiria:

Helbidea:

Telefonoa:

Eposta:

Kontu zenbakia:

**Harpidetu  
zaitez**

**Bete formularioa  
eta erredakziora ekarri  
edo karkara.eus/harpidetza  
helbideko formularioa bete**





**SUHAR, NEREA, NAHIKARI,  
MAITANE ETA ITSASO**

Oraingoan, gure ikastetxean, Lardizabal Herri eskolan, lanean dabilen Zigor Agirre elkarrizketatu dugu bere lana zein den argitzeko eta bera ere pixka bat gehiago ezagutzeko.

**Zein da Lardizabal eskolan betetzen duzun lanpostua?**

Aholkulariaren plaza da nirea.

**Zergatik hasi zinen Hezkuntza Berezi lanetan?**

Irakaskuntza bereziki gustatzen zaidalako eta laguntza behar duten ikasleekin aritzea ere gustatzen zaidalako.

**Zigor, azalduko al zeniguke zein den zure lana?**

Nire lana azken finean eskola batean laguntzean datza, ikasle izan zein irakasle izan. Eskolan dauden beharrei eta arazoei irtenbide egoki bat topatzea. Horretarako ezinbestekoa dut irakasle eta gurasoen elkarlana, eta guzti horri forma ematen saiatzen naiz.

**Zer ikasketa egin dituzu?**

Lehenengo psikologia ikasi nuen, Donostian, eta gero, irakasle-eskolan Hezkuntza Bereziko ikasketak egin nituen.

**Zenbat eskolatatik pasa zara?**

Ez naiz gogoratzen baina urte batean 24

## “Zorte handia dut irakaslea izateagatik”

### **Zigor Agirre**

Lardizabal Herri Eskolako irakaslea

ikastetxe pasa nituen, horiek dira gehien pasa nituen ikastetxeak. Hasieran ohikoa da, baina ez da normala horrenbeste ikastetxe pasatzea ikasturte batean.

**Zenbat urte daramatzazu lanean?**

Lanean 10-12 bat urte daramatzat.

**Zein da gehien gustatzen zaizun lana?**

Irakasle izatea eta horretan zortea daukat.

**Lan hau lortu izan ez bazenu zein lan egingo zenuke?**

Beste lan bat bilatu beharko nuke bizi ahal izateko baina, honetan zortea izan dudanez, ez dut inoiz planteatu beste lanik.

**Aukera izanez gero gure eskolan gertuko al zinateke?**

Bai, oso gustura nago ikastetxe honetan.

**Eskola berria gustatu al zaizu?**

Bai, orain aprobetxatu behar dugu dena ondo jartzeko eta zuek ere disfrutatu ahal izateko.

**Zuen gela gustuko al duzu edo zerbait falta dela sumatzen duzue?**

Beti falta da zerbait baina oso gustura nago daukaten gelarekin eta beste gela gutzietan sartzen naizenez pozik nago.



Maitane Iturain

## *Sare sozialen arriskua*

2017ko martxoaren 3an Zarauzko bi ertzain emakume 5. eta 6. mailakoei internet eta gailu elektronikoen arriskuen berri ematera etorri ziren. Lardizabal eskolan, gure eskolan, eman ziguten hitzaldia.

Lehenik, internet eta bere arriskuen berri eman ziguten. Ondoren, sare sozialetan ibiltzearen eta bertara argazkiak igotzearen arriskuei buruz jardun zitzaizkigun. Argi geratu zitzaidan internet mundu horretan *biluzik* aurkitzen garela. Edozein gauza igotzen dugula *hackerren* esku dagoela eta edozein gauzetarako erabili ditzaketela, askotan gure kalterako.

Kontuan izan behar dugu gaur egun gure adineko gehienok mugikorra dugula eta sare sozialetako sarrera eskuragarri dugula, nahiz eta debekatuta egon adin-txikikoei. Hitzaldian aipatutako debekuak eta arriskuak argi geratu zitzaizkidan, momentuan internet eta gailu elektronikoen arriskuez konturatu bainintzen.

Umeei eta helduei ematen dizkiete hitzaldiak.

Hitzaldia hemendik gutxira gurasoei eskainiko diete.

***Argi geratu zitzaidan internet mundu horretan biluzik aurkitzen garela.***

# Herritarren parte-hartzea administrazio publikoan



Hiri Antolamendurako Plan Orokorra prozesu parte-hartzailean landu zuen Udalak. KARKARA

Herritarren partaidetza geroz eta indar handiagoa hartzen ari da administrazio publikoan. Politika modu berriak agertzearekin batera, horiek martxan jartzerakoan parte hartzea garrantzia hartzen joan da. Horren harira lege proiektu bat egin du Eusko Jaurlaritzak: *euskal sektore publikoaren garrantasuna, herri partaidetza eta gobernu oneko legea*.

## Herritarren parte-hartzea eta parte hartzeko prozesuak

Lege proiektuak gobernu irekien hainbat alderdi hartzen ditu; laugarren tituluan herritarren parte-hartzea eta parte hartzeko prozesuak lantzen dira. Legearen helburua EAeko *interesdunek, zenbait interesen ordezkari diren taldeek eta herritarrek gai publikoetan parte har dezaten eta lankidetzan aritu daitezzen* bultzatzea da.

Horrek hainbat eskubide eta betebeharrak ekartzen dizkie herritarrei. Hauek

dira eskubideak:

- Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoak abian jarri beharreko programa eta politika publikoen plangintza eta garapena zehazten parte hartzeko eskubidea.

- Zerbitzu publikoen programa eta politika horien eta kalitatearen jarraitapenean eta ebaluazioan parte hartzeko eskubidea.

- Xedapen orokorrak landu, aldatu eta berrikusten parte hartzeko eskubidea.

- Erregelamenduak egiteko ekimenak sustatzeko eskubidea.

- Irekitzen diren jendaurreko aurkezpenaren eta entzunaldiaren izapideetan alegazioak eta oharrak egiteko eskubidea.

- Zerbitzu publikoen kalitatea hobetzeko jarduerak proposamenak edo iradokizunak egiteko eskubidea.

- Herritarren jardueretan Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publiko-

ak lankidetzan eskaini dezaten eskatzeko eskubidea.

## Parte-hartze prozesuen faseak

Herritarren partaidetza sustatzeko prozesuak egituratu egin behar dira. Horretarako, lau fase nagusi aurreikusten ditu lege proiektuak.

- Zabalkunde publikoaren fasea: parte-hartze prozesuaren, bere ezaugarrien eta irismenaren eta, oro har, hausnarketa eta eztabaida egiteko beharrezko informazio guztia herritarrei helaraztea.

- Deliberazio eta kontrastatze fasea: ikuspegi eta interes-talde desberdinetatik egin beharreko lana.

- Proposamenak egiteko eta adostasunak bilatzeko faseak.

- Ondorio eta erabakiak gizarteari bueltan emateko faseak.

## Paraidetza sustatzeko neurriak eta bitartekoak

Parte-hartzea sustatzea sektore publikoaren arduradela aipatzen du lege proiektuak. Horretarako, *sentsibilizazio eta prestakuntza programak sustatu eta egingo ditu, herritarrentzako eta herri entitateentzako prestakuntza programak martxan jarriko ditu eta bitarteko elektronikoaren bidez parte hartzea eta administrazio elektronikoa garrantzia sustatuko ditu*.

Herritarren partaidetza bermatzeko hainbat bitarteko erabiliko ditu administrazio publikoak: *inkestak, iritzi-eskeak, kontsulta-foroak, eztabaida- eta kontsulta-guneak, kontsulta orokor edo sektorial ez-lotesleak, kontsulta irekiak, herritarren panelak, herritarren epaimahaiak, partaidetzazko deliberazio-prozesuak eta egoki izan daitezkeen gainerako tresna guztiak*.



EAJ

Behetik gora herria eraikitzen

Ez da lehen aldia Karkararen txoko honetan partaidetzaren inguruan hitz egiten dugula. Aurreko hartan, eta oraingo honetan, gure taldeak partaidetzan sinesten duela eta berau sustatzeko ekimenak bultzatzeko hautua egin eta egingo duela adierazten du.

Hitzetik ekintzetara pasatuz, Orioko Udalak Gipuzkoako Lurralde Historikoko Herritarren Partaidetzarako Erakunde Arteko Espazioan parte hartzen du. 2017rako herrian parke estali bat non eta nola egin hausnartzeko eta erabakitzeke parte hartze prozesu bati ekiteko proiektua burutu nahi dugu.

Prozedura honek parkearen inguruko eztabaidarako balioko digu noski, baina esperientzia honetatik erabaki bat soilik ez genduke atera nahi, ondorengo partaidetza prozedura berrietarako ikasbideak ateratzeko balioko digu.



Orain

Noren esku dago gure etorkizuna?

... ez bada gure eskuetan!!!

Korrika egitea zure esku dago eta Korrikan parte hartzea ere bai.

Aberri Egunean ikurriña balkoian jartzea aukera bat da. Udal Gobernuak, herritarren ordezkariak kudeatzen duenez eta horrela erabakita baldin badago, Udaletxean jarri beharko luke. Itsututa gaude eta bizitzak ematen digun koloreak ez ditugu disfrutatuta nahi? Itsuarena egiten jarraituko dugu? Telebistak eta internetek ikusmena gastatuko digute itsutu arte?

Lau urtetan behin botoa ematea eta gero 1.461 egunetan gure bizitzetako erabakiak alderdi nagusietan delegatzea itsu-itsuan ez duela funtzionatzen gero eta nabariago ikusten da. Sistema horrek ez du etorkizunik.

Etorkizuna egunero erabaki txikiak hartuz jorratzen da eta ez baditugu hartzen beste batzuk hartuko dituzte gure partez. Etorkizuna gure esku dago edo ez dago etorkizunik.



EH Bildu

Parte hartzea saretzen

Azken urteetan asko entzuten dugu parte hartzeaz hitz egiten: herritarrek jakitun izan behar dutela eta parte hartu behar dutela hartzen diren erabakietan. EH Bilduren filosofian txertatuta dago parte-hartze eredu bultzatzea eta pasa den legealdian erakutsi zen hori, martxan jarri ziren hainbat aholku mahairekin, non herritarrak ziren partaide eta protagonista. Adibide batzuk jartzeko: Kirol Mahaia, Zabor Mahaia eta Topagune Berdea; azken horretatik irten zen, esaterako, Herriko Plaza asteburuetan oinezkoentzat ixtearen ideia. Aurrekontuak ere publikoki aurkezten ziren, norbaitek zerbait esatekorik bazuen, aukera emateko. Parte hartzeaz hitz egiten denean ez baikara ari bozkatzeko aukera izateaz bakarrik, herrigintzaz baizik, guztion artean nolako herria nahi dugun erabakitzeaz. Horretarako, ordea, beharrezkoa da sareak sortzea eta aukera ematea jendeari interesa sortzen dioten gaietan parte hartzeko. Hori da, gure ustez, bultzatu behar dena, inguru aktibo bat sortzeko.



PSE-EE

Hilabete honetan iritzirik ez

Hilabete honetan ezin izan dute iritzirik idatzi.

## Gizartea

# Jubilatu eta pentsiodunen eguna ospatu zuten martxoaren 29an



Urtero bezala, jubilatu eta pentsionisten eguna ospatu zuten martxoaren 29an, asteazkenean, herriko zaharrek. 12:00etan hasi zuten egitaraua, mezarekin. Egunsenti abesbatzak alaitu zuen elizkizuna. Meza entzun ondoren, Aginagako Errasti sagardotegira joan ziren bazkaltzera. Urtero bezala, sagardotegia osoa bete zuten eta giro ederra izan zuten kupel artean.

## Harora irteera

Maiatzaren 10ean Harora irteera egingo dute Zaharren Babeslekuko bazkideek.

Goizeko 9:00etan irtengo dira Oriotik eta hamaiketako egingo dute iritsi bezain laster. Goiza Haro bisitatzen pasa ostean, 14:30ean bazkaria egingo dute Ochavo erretegian. Hau izango da menua:

- Kroketak, haragiz betetako piperrak, espinakaz betetako piperrak, perretxiko nahasia eta zainzuriak.
- Odolkia eta txorizoa, xirmendutan erre-ta.
- Entsalada; arkume-txuletak eta sekretua, xirmendutan erre-ta, patata eta piper gorrien guarnizioarekin.

•Etxeko postrea.

•Kafea.

•Urteko ardoa, gaseosa, ura eta ogia.

Txartelen salmenta maiatzaren 2an egingo dute, Zaharren Babeslekuan, 16:00etatik 18:00etara, eta prezioa 35 eurokoa izango da. Txartela erosteko eguneratua eduki behar da bazkide txartela. Autobus baterako baino jende gehiago apuntatzen bada, zozketa egingo da. Bigarrn autobusa antolatzeke, gutxienez, 20 lagunek eman behar dute izena.

## Galiziara, irailaren 18tik 26ra

Bederatzi egun eta zortzi gaueko irteera ere egingo dute Galiziare irailean herriko jubilatuak, Babeslekuak antolatuta. Irailaren 18an egingo dute irteera eta hilaren 26an itzuliko dira.

Zaharren Babeslekuko bazkideek maiatzaren 31 baino lehenago eman beharko dute izena eta 45 euroko laguntza izango dute. Tokirik geratzen bada, ekainaren 1etik aurrera bazkide ez direnek ere eman dezakete izena. Bidaiara joan nahi duenak edo informazio gehiago jaso nahi duenak 626471423 -Txomin- telefono zenbakira deitu beharko du.

## Kirola

# Hondartzako taberna-jatetxeetako bat kontzesioan emateko lehiaketa abiatu du Udalak

Udalak lehiaketa publikoa jarri du martxan, Antillako hondartzako 1. eraikinean ostalaritza zerbitzuak emateko kontratua adjudikatzeke. Eraikin hori errio ondokoa da eta, oraintsu arte 'Gure aitona' taberna-jatetxea egon da bertan.

Lehiaketa publikoaren iragarkia apirilaren 10ean argitaratu zen Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta baldintza-orriak orio.eus atarian deskargatu daitezke.

Lehiaketara proposamenak aurkezteko azken eguna 2017ko maiatzaren 8a izango da.





## Gizartea

### Maiatzaren 17an eta 18an eman beharko da izena Txurrumuskik udako antolatu dituen ekimenetan

Uda gero eta gertuago da, eta herriko haur eta gaztetxoek oporraldian primeran pasa dezaten hainbat ekimen antolatu ditu Txurrumuski Aisialdi-Gazte Elkarteak. Udako Txokoa, Udaleko Irekiak eta Gazte Abenturak antolatu dituzte uda sasoirako. Maiatzaren 17an eta 18an eman beharko da izena Orioko Kultur Etxean, 17:30etik 19:30era.

Izena ematerakoan hurrengo agiriak aurkeztu behar dira:

- Txurrumuskik Euskadiko Kutxan (Laboralean) duen 3035 0182 18 1820021770 kontu zenbakian diru sarrera egin behar da. Kontzeptuan haurren izen-abizenak zehaztu beharko dira, eta izena ematerakoan gurasoek kultur etxean aurkeztu beharko dute agiria.
- Izena-emate orria beteta entregatu beharko da. Hori eskuragarri dago herriko ikastetxeetan, kultur etxean, ludotekan eta Gaztelekuan.
- Osasun txartelaren kopia.

## Politika

### Iñigo Arruti Agirre izango da Orain taldeko zinegotzi berria



## Gizartea

### Rocio Jaialdia antolatu du Arkupe elkarteak Orion, apirilaren bukaerarako

Apirilaren 28rako eta 29rako Rocio Jaialdia antolatu du Orion Arkupe elkarteak, Orioko Udalaren laguntzarekin. Bi egunez Andaluziako Rocio herrixkako erromeria giroan murgilduko da herria, eta oriotarrak eta bisitariak jaiari parte hartzera gonbidatu dituzte elkartetik. Hileko azken asteburuan, Rocio herriko jaialdian ohikoak diren bi etxetxo jarriko dituzte Orion; bata Kutixi kafetegiaurrean, eta bestea Antilla tabernaren aurrean. Gainera, Semblante Rocio taldeak girotuko du herria ostiral eta larunbat iluntzean. Ostiralerako giro andaluziarra izango duen pintxo potea antolatu dute, eta Semblante Rocio taldeak kalejira egingo du herrian zehar. Larunbatean berriz, oriotarrak jantzi flamenkoak jantzita kalera ateratzera animatu dituzte Arkupe elkartetik. Etxetxoetan Photocall-ak jarriko dituzte, eta horietan ateratako argazkiak Arkupe elkartearen Facebook orriari partekatzea nahi dute antolatzaileek. Argazki onenak 200 euroko saria irabaziko du.

## Gizartea

### Iera Ondarra Zubeldiak beteko du kanpinoko harrerako eta turismo bulegoko lanpostua aurtengo udako denboraldian

Udalak lanpostu baten deialdia egin zuen, aurtengo denboraldian kanpinoko harreraren eta turismo bulegoan lan egiteko. Aukeraketa-probetan puntuaziorik altuena lortu duena eta, beraz, denboraldiko lanpostu hori eskuratu duena Iera Ondarra Zubeldia izan da. Udalak bi ordeko ere izendatu ditu, beharra sortuko balitz erabiltzeko: Naiara de la Hoz Arregi eta Oihana Gurrutxaga Vivas. Guztira, 8 lagun aurkeztu ziren lanpostura eta horietatik lau deialditik kanpo geratu ziren, eskakizunen bat betetzen ez zutelako.

Apirilaren 5eko ez ohiko udalbatzarrean Miriam Uranga Egurzak, Orain taldeko bozeramaileak, uko egin zion zinegotzi karguari erantzukizun handiagoa duen lanpostua eskaini diotelako. Horrela azaldu zuen jendaurrean: *profesionalki salto handia da eta egoera berrian ezinezkoa izango zait nire lanbidea eta zinegotzi lana ezkontzea*. Uranga sei urtez izan da Orioko udaleko zinegotzia eta herritarrei mezu bat luzatu zien bere azken udalbatzarrean: *kalean, parkean edo tabernan egiten diren kritika antzuek ez garamatzate inora. Kritiketarik ekintzetara pasa behar dugu; denon artean kaleko hitzak udalera eraman behar ditugu, entzunak izan daitezten. Hori da parte hartzea bermatzeko bide bakarra*. Urangak utzitako zinegotzi kargua betetzeko Iñigo Arruti Agirre Txabola aukeratu du Orain taldeak. Horretarako, apirilaren 12an udaletxean agiriak aurkeztu ziren, egin behar diren izapideak bizkortzeko.

**AZOKA**

**Iragarkietarako txokoa.** Iragarri nahi duzun hori telefonoz (943 83 15 27) zein e-postaz bidali dezakezu: karkara@karkara.com. Merke asko, gainera, doako zerbitzua baita gurea.

**Alokairua**

■ 25m2.ko garaje itxia alokatzen dut Itur-bide kaleko aldapan.

Tfnoa. 943.830744

Helbide elektronikoa: garbichile@gmail.com

■ Loft edo gela bat alokatzeko interesa dut Orion. Inguruko herriren batean bada ere, primeran. Latifa Mejjat Tf: 674811827

■ Apartamentua alokagai Orion. Gela bat, altzariekin. Tf: 648614769

**Lan eskaintza**

■ 5 urteko neska zaintzeko pertsona behar da Ekaineko erdialdetik Iraileko erdialdera, goizetik eguardira. Pertsona horrek arduratsua eta euskalduna izan behar du. Berdin zaigu ume gehiago bere kargu baditu. Telf.605701772

■ Bi neska txiki arratsaldeetan zaintzeko emaku-

mea behar da. Emakume horrek 35-50 urte artekoa, arduratsua, alai eta euskalduna izan behar du. Kotxea eta disponibilitatea izan behar ditu. Udaran ere lan egingo du. Epe luzerako lana da. Interesatuak telefono honetara deitu: 655729050

■ Neska euskalduna nahi dugu tabernan lana egiteko. Tf: 653709264

**Lan eskaera**

■ Emakumea lan bila, barnekoa, kanpokoa edo gauzez. Haur edo zaharren zainketan edo garbiketlan lan egiteko prest. Esperientzia eta erreferentziekin. Tf: 600390347 -Katy-

■ Karmele, 50 urteko euskalduna umeak zaintzeko lan bila. Tf: 687200368

■ Umeak zaintzeko eskaintzen da emakume bat. Esperientziaduna Tf: 664156444

■ Neska lan bila zaharren zaintzan. Esperientzia eta paperak ditut. Tf: 674123293

■ Ordukako lan bila dabilen mutila naiz. Garbiketlan eta helduen zaintzan. Tf: 603644555

■ Asteburuetarako lan bila nabilen neska naiz. Helduen zaintzan zein garbiketlan lan egin dezaket eta paperak ditut. Tf: 663117579

**Salgai**

■ Babes Ofizialeko Etxebizitza bat nahi? Andatza auzoan, 2 logela, trasteroa eta garajea. 115000 euro. Tf: 649017627

■ Aiako aurtengo intxaurrak salgai: 4 kilo, 20 €, tamaina onekoak, etxera eramanda. Pati deitu: 943132131 edota 634 424 887.

**ITSASOA**

EGUNA	ITSASGORA	ITSASBEHERA	ILARGIA
01	8:59 eta 21:24	2:40 eta 15:03	
02	10:03 eta 22:31	3:40 eta 16:04	
03	11:19 eta 23:50	4:49 eta 17:17	
04	12:42 eta ____	6:08 eta 18:36	
05	1:10 eta 13:56	7:25 eta 19:49	
06	2:17 eta 14:54	8:28 eta 20:47	
07	3:11 eta 15:40	9:17 eta 21:34	
08	3:56 eta 16:18	9:58 eta 22:14	
09	4:34 eta 16:53	10:33 eta 22:50	
10	5:08 eta 17:24	11:07 eta 23:24	
11	5:40 eta 17:55	11:39 eta 23:58	
12	6:12 eta 18:27	12:12 eta ____	
13	6:44 eta 18:59	0:32 eta 12:45	
14	7:17 eta 19:32	1:07 eta 13:20	
15	7:53 eta 20:08	1:44 eta 13:56	
16	8:32 eta 20:49	2:24 eta 14:37	
17	9:18 eta 21:39	3:09 eta 15:25	
18	10:16 eta 22:40	4:03 eta 16:23	
19	11:26 eta 23:52	5:07 eta 17:30	
20	12:39 eta ____	6:16 eta 18:40	
21	1:03 eta 13:43	7:20 eta 19:44	
22	2:05 eta 14:39	8:18 eta 20:40	
23	3:00 eta 15:29	9:09 eta 21:31	
24	3:50 eta 16:16	9:57 eta 22:20	
25	4:38 eta 17:02	10:44 eta 23:08	
26	5:26 eta 17:48	11:30 eta 23:56	
27	6:13 eta 18:35	12:17 eta ____	
28	7:02 eta 19:24	0:45 eta 13:05	
29	7:53 eta 20:15	1:35 eta 13:55	
30	8:48 eta 21:11	2:28 eta 14:48	
31	9:48 eta 22:12	3:26 eta 15:46	

**ZAINZAKO BOTIKAK**

MAIATZA:

- 1ean, Iriarte
- 2an, Zulaika
- 3an, Esparza
- 4an, Larrañaga
- 5ean, Iturria
- 6an eta 7an, Etxeberria
- 8an, Iriarte
- 9an, Esparza
- 10ean, Larrañaga
- 11n, Iturria
- 12an, Etxeberria
- 13an eta 14ean, Esparza
- 15ean, Lasa
- 16an, Larrañaga
- 17an, Lasa
- 18an, Zulaika
- 19an, Iriarte
- 20an eta 21ean, Izpizua
- 22an, Lasa
- 23an, Izpizua
- 24tik 26ra, Lasa
- 27an eta 28an, Zulaika
- 29an, Iturria
- 30ean, Lasa
- 31n, G. Artifiñano

- Izpizua:** Urdaneta kalea, 8. 943 13 31 83 Zarautz
- Etxeberria:** Gipuzkoa kalea, 17. 943 83 23 98 Zarautz
- Mutiozabal:** Kale Nagusia, 12. 943 83 29 70 Zarautz
- Larrañaga:** S. Frantzisko, 16. 943 13 38 14 Zarautz
- Lasa:** Herriko plaza. 943 83 09 36 Orio
- G. Artifiñano:** Zigordia kalea, 17. 943 13 40 19 Zarautz
- Iriarte:** Zinkunegi, Pilartxo Enea. 943 13 29 83 Zarautz
- Zulaika:** Bizkaia kalea, 41. 943 13 39 94 Zarautz
- Esparza:** Santuturri plaza, 5. 943 50 47 83 Zarautz

## KOMIKIA



## Orio

**Musika**

■ Maiatzaren 5ean, ostiralean, Amoranteren kontzertua, 22:30ean, Kultur Etxeko areto nagusian.

**Maria Maestra haur eskola**

■ Maiatzaren 2an, ate irekiak, 17:00etatik 18:00etara, Haur Eskolan. Matrikula-zio epea maiatzaren 2tik 12ra.

**Danbolin musika eskola**

■ Maiatzaren 8an, 9an eta 11n, Musika Eskolako ikasleen emanaldiak, 17:30ean, Kultur Etxean.  
 ■ Maiatzaren 11n, Donostiako Francisco Eskudero kontserbatorioko ikasleen kontzertua, 19:30ean, Kultur Etxean.  
 ■ Maiatzaren 13an, Danbolinfest jaialdia. 11:00etan emanaldiak plazan eta herrian zehar. Ondoren herri bazkaria eta 17:30ean erromeria.

**Artisau azoka**

■ Maiatzaren 7an artisautza azoka egun osoan plazan.

**Herri galdeketa**

■ Maiatzaren 7an, Gure Esku Dagoren

herri galdeketa, 9:00etatik 20:00etara, herriko plazan eta Ikastola aurrean.

**Erakusketak**

■ Maiatzaren 2tik 19ra Alex Arellanoren *Bideko Ateak* erakusketa, Kultur Etxean.  
 ■ Maiatzaren 22tik ekainaren 2ra Sahararen inguruko erakusketa Kultur Etxean.

**Traste zaharrak**

■ Maiatzaren 17an eta 31n, traste zaharren bilketa. Aurrez Udaletxera deitu behar da: 943830346.

**Besteak**

■ Maiatzaren 15ean, Miriam Mendoza ipuin kontalaria, 18:00etan, Kultur Etxeko areto nagusian.  
 ■ Asteazkenero bingoa, 16:30ean, Kultur Etxean.

## Aia

**Landare Berezien XV. azoka**

■ Apirilaren 29an eta 30ean, XV. Landare Berezien Azoka Iturrarango Lorategi Botanikoan.  
 ■ Apirilaren 29an, 11:00etan, Paco Garin botanikariaren hitzaldia eta 11:30ean, Biodibertsitatearen Lorategira bisita.  
 ■ Apirilaren 30ean, 11:00etan, Jakoba Errekondoren *Bizi baratzea*, *Altza Porru* liburuaren aurkezpena. 12:00etan, Jose Mari Zabalaren *Lorategien diseinura ego-akitutako geometria sakratua* hitzaldia. Goiz-eguerdi partean, bisita Biodibertsitatearen Lorategira.

**Erromeria Aristerrazun**

■ Apirilaren 30ean, erromeria Aristerrazun Eztengiro taldearekin, 18:30etik 21:30era.

**Asentzio feria**

■ Maiatzaren 21ean, Asentzio feria Aia-ko herrigunean.

**Podologia**

■ Maiatzaren 27an podologoaren kontsulta, sendagilearen etxean. Aurrez ordua hartzeko: 943131144.

## XX. MENDEAN BARRAN HILDAKOEN OROIMENEZ

*Oriotarren kezka minena da barra,  
itsasorako duten ur-bide bakarra,  
ogi billa joateko igaro bearra  
eriotza dutela zelatari zaarra*

*Fabian Loidi*

Lorenzo Azpiroz Maritxalar	1907-06-26
Jose Bixente Fernando Loidi	1922-02-14
Jose Manuel Lazaro Mitxelena	1922-02-14
Laureano Oliden Oliden	1925-05-11
Jose Inazio Alfonso Manzisidor	1925-05-11
Bautista Lopetegi Arregi	1932-09-06
Benito Diaz Estebanez	1932-09-06
Martin Iribar Olaizola	1935-03-28
Antonio Murua Elizalde	1941-05-07
Juan Jose Iparragirre Lizarraga	1943-04-07
Jose Cruz Lopetegi del Puerto	1943-04-07
Santiago Otaegi Solaberrieta	1943-04-07
Andres Iraola Manterola	1952-04-22
Inazio Iraola Manterola	1952-04-22
Jose Ramon Oliden Lizaso	1952-04-22
Agustin Agirre Odriozola	1952-04-22
Teodoro Ganuza Zuñiga	1952-04-22
Manuel Manzanas Nikolas	1953-08-25
Jose Urretabizkaia Eizagirre	1953-08-25
Ramon Uranga Irigoien	1961-03-04
Jesus Garmendia Lazkano	1966-11-03
Benito Lertxundi Lizaso	1975-06-10
Eugenio Zabala Zubiarrain	1975-06-10

